

LEKUAN LEKUKO anboto

'HERRIAN' BBK LIVE

"Durangoko kontzertua pertsonalitate handikoa eta oso 'ni' izango da"

BBK Livek maiatzaren 30ean Durangon egingo duen kontzertu sortaren barruan Amaiurtxuk kontzertua emango du / 17



Amaiurtxu.

JAIK

San Prudentzio jaiak azken txanpan sartu dira, egitarau zabalagaz

Traña-Matienako jaien bigarren astebururako X. Gazte Eguna eta kontzertuak antolatu dituzte, besteak beste / 8



LUCIA MERUELO

ONGIZATE GEHIGARRIA / 13



ERAKUSKETA

Arte eta Historia Museoak Jorge Oteizaren zortzi eskultura ipini ditu ikusgai / 18

MUSIKA

Izar Records musika lehiaketak 30 talde eta bakarlariren talentua plazaratzea du helburu / 18



"Sekulako denboraldia izan da eta oraindino lorpenak barneratzen gabiltza"

Tabirako Baqueko gizonen talde nagusiak Lehen Nazional Mailako Liga eta Kopa irabazi ditu denboraldi berean. Aitor Calle talde horretako kapitaina da. / 2-3

Aitor Calle taldeko kapitaina.



ABADIÑO

SCHMIDT
SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK

Maiatzaren 1etik 31ra

%20KO DESKONTUA
sukalde eta altzarietan

Esaintza balagarria sukaldako altzarri guzietan, ikusi baldinuzk zure Schmidt salazalearekin parte hartzen duzun dendetan



Aitor Calle, Landako kiroldegiko kantxan.



Tabirako-Baqueko jokalarik eta kideak garaipena ospatzen. LUIS ITURRIOZ



Jokalaria Xabi Chico entrenatzailea aupatzen. LUIS ITURRIOZ

"Jokalarien artean ez dago egorik eta hori garrantzitsua da arrakasta izateko"

AITOR CALLE GARITAONANDIA

TABIRAKO-BAQUE SASKIBALOI TALDEKO KAPITAINA

Tabirakok Lehenengo Nazional Mailako Liga eta Kopa irabazi ditu denboraldi berean, klubaren historian lehenengoz. Aitor Calle taldeko kapitaina da

Joseba Derteano DURANGO

Tabirakok beste mugarri bat ipini du klubaren historian. Aitor Calle Garitaonandia (Durango, 1993) taldeko kapitaina ez ezik jokalaririk beteranoena da. Asko eman dio taldeari, eta horrela jarraitzeko asmoa du. Hurrengo denboraldian bai behintzat; hortik aurrera jarraituko duen, "denborak esango du".

Kopa eta Liga denboraldi berean, arin esaten da.

Sekulako denboraldia izan da! Barneratzea ere kostatu egiten da. Tabirakok bere historian Liga eta Kopa denboraldi berean irabazten dituen lehenengo aldia da. Xabi Chico gaur egungo entrenatzailea orain bost bat urte etorri zen eta beragaz irabazten hasi ginen. 2019-2020 denboraldian EBA Mailara igo ginen [gaur egungo Hirugarren FEB maila], eta hori ere mugarri bat izan zen Tabirako klubean. Lehenengoz igo ginen.

2022an, EBA mailara berriro igo zineten urtean, Kopa irabazi zenuen, baina orduan ez zineten ligako txapelkun geratu.

Hala da. Orduan lau finala jokatu ostean igo ginen, liga txapelketa irabazi barik. Finalean Tecnun Askatuak taldea kanporatu genuen, eta finalean Take Tolosa taldea. Gogoan dut finala oso gogorra izan zela. Luzapen biren ondoren irabazi genuen. **Xabi Chico entrenatzaile urretxuarren figura aipatu duzu. Zer eman dio taldeari?**

Etorri zenean segituan konektatu genuen beragaz. Oso giro ona sortu zuen taldean. Esku-zabala da.

Eskuzabala zer zentzutan?

Entrenatzaile batzuk zorrotzagoak dira, eta Xabik, zelan esan, beste batzuek baino malgutasun handiagoa dauka. Berak bere filosofia dauka, badaki zelan jokatu gura duen, jokaldi guztiak buruan ditu eta gogor entrenatzen gara, baina askatasuna ere ematen du, eta huts egiten baduzu ez da beste batzuk bezain gogorra. Eta bere metodoak ederto funtzionatu du gugaz. Begira emaitzei!

Gogoratu dezagun apur bat joan zen domekako partidua. Landako kiroldegia bete egin zen.

Bai. Nik urte asko daramatzat Tabirakok, eta horrelako giroagaz jokatzeko deskribatu ezin dudana sententzia da. Kantxara sartzen zaren momentu hori... horrela jokatzeko plazera da eta plus bat ematen digu.

Partidua azken markagailuak erakusten duena (72-60) baino gaxagoa izan zen. San Prudentziok gerra eman zuen lehenengo zatian. Atsedenaldira 36nako berdinke-tagaz heldu ginen. Orduan kon-

"Xabi Chico etorri zenean, segituan konektatu genuen beragaz. Oso giro ona sortu zuen"

tuak ez zeuden hain argi. Gogoan geneukan euren kantxan jokatutako partidua 16 puntugaitik galdu genuela, eta etxean ere galdu egingo ote genuen pasatu zitzaigun burutik. Baina hirugarren laurdenaren amaieran abantaila hartu genuen eta hortik aurrera ondo kontrolatu genuen partidua.

Buruko mamuei aurre egin behar izan zineten.

Bai. Partidu bi geratzen ziren liga amaitzeko. Etxetik kanpora irabaztea beti da gatxa eta azken jardunaldian etxean hil ala biziko partidua hori... Ardura hor geneukan. Zorionez, dena ondo irten zitzaigun.

Liga irabazita Euskadiko Lehenengo Nazional Mailatik Espainiako Hirugarren FEB Mailara zuzenean igotzeko eskubidea duzue. Eskubide hori baliatuko duzue?

Azken urteetan, igoera bat baino gehiago lortu eta igo ala ez aukeratzeko pribilegioa izan dugu. Aurten zer gertatuko den? Ez dakit. Espainiako Hirugarren Maila berba potoloak dira. Begira zelako taldeak dauden: Valladolid, Avila... Fitxaketak egiten dituzte eta gu harrobiko klub bat gara. Etxeko jokalariekin jokatzeko dugu eta ez da erraza holako mailako taldeen kontra lehiatzea. Iaz, esaterako, maila horretan ibili ginen, partidua asko galdu genuen eta gogorra egiten da. Galdu, buelta etxera, aste osoan entrenatu eta berriro galdu... Ez da erraza. Gainera, desplazamenduak

luzeagoak dira eta hori astuna egiten da. Taldeko beteranontzat batez ere. Gazteentzat ez hainbeste. Gaztetasunak horixe du, edonora joateko prest daude. Baina zenbat eta nagusiago, orduan eta gehiago baloratzen duzu gertutasuna. Zuzendari-zako kideekin batu eta gure iritzia emango dugu. Badakit hainbat gauza baloratu behar direna. Durangoren izena eta babesleen izena toki gehiagotan zabaltzeko aukera, esaterako. Dena balantzan jarrita hartuko da erabakia.

Eta Kopako garaipena zelan gogoratu duzu?

Ibaizabalen kontrako finalerdia gogorra izan zen, finala baino gogorragoa. Azken laurdenean hurreratu egin zitzaizkigun eta estuasunen bat igaro genuen, baina azkenean partidua bideratzea lortu genuen. Navabasketen kontrako finala askoz ere errazago irabazi genuen. Segituan hamar puntuko aldea hartu genuen eta horri eutsi genion.

Zelako taldea dauka Tabirakok?

Jokalari asko betikoak dira; hau da, urte asko daramatzagu: Xabi Arroitauregik, Asier Arizmen-diarrietak, Markel Aranzabalek...

Bloke bat osatzen dugu eta behe-tik datozen gazteak laster egokitzen dira taldera. Talde gaztea dugu. Neu naiz beteranoena, 32 urte gaz. Hurrengo Arroita dator eta lau-bost urte gazteagoa da. Beraz, esperientzia eta freskotasuna uztartzen ditugu. Jokalarien artean ez dago egorik eta ezaugarri hori garrantzitsua da arrakasta izateko.

Urte asko daramatzazu irabazten. Jokalari bat ohitu egiten da irabaztera?

Ez nuke esango ohitu garenik, baina, egia esanda, lehenengoz igo ginenean poza sekulakoa izan zen. Harrezkero, hainbat gauza lortu dugu. Orain errazagoa dirudi, baina ez da horrela. Txapelketa bat irabaztea beti da gatxa.

Personalki zelako denboraldia izan duzu? Gustura zaude egindako lanagaz?

"Ez nuke esango ohitu garenik, baina lehenengoz igo ginenean poza sekulakoa izan zen"

Bai, gustura nago. Egia esanda, urteak aurrera doaz eta fisikoki nabaritzen dut; belaunak nahiko txarto ditut. Taldeari gehiago ematea gura nuke, baina ez dut inongo arazorik nire tokia taldekide bati uzteko, eta nik aukerarik animatzeko, partidua irabazten badugu.

Noiz arte ikusten duzu zeure burua jokatzeko?

Lagunek egin izan didate galdera hori eta ez dut jakin izan zer erantzun. Oraindino ez dut pentsatu, urtetik urtera ikusten dut zelan nagoen. Azken urte bietan buruan bueltaka dudana zerbait da eta datorren denboraldia azkena izan daiteke. Aukera bat da, jakina, baina oraindino ez dakit segururik. Denborak esango du.

Nazional Mailako saskibaloia asko aldatu da zu hasi zinenetik gaur egunera?

Lehenengo taldeagaz jokatzeko hasi nintzenez, saskibaloia askoz ere fisikoagoa zela uste dut. Kontaktua gehiago zegoen. Orain jokoa arinagoa da eta taktika asko dago. Orain ere kontaktua badago, baina garai batean gehiago zegoela iruditzen zait.



Lehenengo Nazional Mailako taldea. LUIS ITURRIOZ

Eta ospakizun gehiago baletoz?

Tabirakok ospakizun gehiago izan ditzake oraindino. Lehenengo Nazional Mailako emakumeen taldea lauko finalera sailkatu da matematikoki, joan zen asteburuan Araski taldea mendean hartuta. Horrela, 2023ko lorpena berdindu du. Lauko finala maiatzaren 16-17ko asteburuan jokatuko dute. Koska hori zuten lauko finala gainditu. Orain hamarkada bat, 2016an, igoera faseraino heldu ziren. Emakumeek behin lortu dute Euskadiko maila gorenetik Espainiakora igotzea. 2000-2001 denboraldian izan zen. Emakumeen bigarren taldea ere bikain dabil. Asteburu honetan Bigarren Nazional Mailarako igoera fasea jokatu du, liga 23 garaipen eta hiru porrotegaz amaitu eta gero.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industriala
- | Automatizazio eta Robotika Industriala
- | Energia Berriztagarriak BERRIA

Espezializazio ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa
- | Eragiketa-teknologiaren Inguruneetako Zibersegurtasuna

» Oñati gestio
heziketa

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- | Administrazio eta Finantzak
- | Marketin eta Publizitatea BERRIA

AURREMATRIKULA

Maiatzaren
4tik 22ra



MGEP: 664 298 683
OÑATI GESTIO HEZIKETA: 943 71 80 09

Sukaldaritza tailerrak eta dastatzeak Durangoko merkatua dinamizatzeko

Maiatzeko eguenetan eta zapatuetan ekoizle gonbidatuak egongo dira merkatuan

Ekaitz Herrera DURANGO

Maiatzean zehar askotariko jardunaldiak egingo dituzte Durangoko merkatuan, hango dendetako salerosketak bultzatu bitartean tokiko ekoizpenei ikusgarritasuna emateko. Jardunaldiak eguenetan eta zapatuetan egingo dituzte.

Eguenetako saio guztiak 18:00etan izango dira. Datorren astean, maiatzaren 14an, sukaldaritza tailerra egongo da Arrazolako Amillena jatetxeko Lur Moragues eta Vanesa Calvo arduradunen eskutik. Bertan, sukaldariak sasoiko eta hurbileko produktuekin egindako platerak kuzinatuko dituzte. Maiatzaren 21ean Arabako Errioxako ardo eta olio dastatzea egongo da azokan. Basque Wine izendapeneko kideek produktu horien ezaugarriak modu didaktikoan ezagutaraziko dizkiete bertara-



Dastatze bat Durangoko merkatuan. DURANGALDEA ELIKADURA

tzen direnei. Maiatzeko azken egunean, hilaren 28an, garagardo dastatzea egongo da Garaiko garagardo ekoizleen eskutik (Garai Agro Brewery). Zerbeza ekologikoak ipiniko dituzte dastagai.

Bestalde, zapatuetako jardunaldiak honako hauek izango dira:

maiatzaren 16an, 08:30etik 12:30era, azokak ekoizle gonbidatu bat izango du. Mungiako Germinados Kimuak etxeko kideek ernamuin eta kimu ekologikoak ekoizten dituzte, eta euren lanaren berri emango dute jendaurrian. Maiatzaren 23an, 10:00etatik 12:00etara, Txa-

ramela pasta proiektuko Ainara Bagerrek eta Izaskun Urbaneak *show cooking* edo zuzeneko sukaldaritza saioa egingo dute. Erakustaldian pasta freskoa kuzinatzeo sekretuak partekatuko dituzte, barazkietatik eta sasoiko beste elikagai batzuetatik abiatuta.

Tailerren artean eskualdeko proiektu bi daude: Arrazolako Amillena eta Garaiko garagardogileena

Durangoko Udalak adierazi duenez, programazio horrek merkatuaren eginkizuna indartuko du gune modura herriarrei "tokiko produktuak ezagutarazteko, horiei buruz ikasteko eta elikagaiok bultzatzeko". Gaineratu dute proposamen guztiak "tradizioa, hurbiltasuna eta jasagarritasuna" dituztela oinarri. Era berean, herriarrek jardunaldietan parte hartzea deitu dituzte.

Kontserbatorioko kideen kontzertu didaktikoak eskoletan

E.H. DURANGO

Durangoko kontserbatorioko kideek kontzertu didaktikoak emango dituzte eskualdeko hainbat ikastetxetan, musika umeengana gerturatzeko. Durangoko, Iurretako, Abadiñoko, Berrizko eta Zaldibarko ikastetxeetan egingo dituzte emaldiak, maiatzean zehar, eta 5-6 urteko 700 bat umerengana ailegatzeko dute helburu. Emaldiak Markeliñe teatro konpainiako kideek ere parte hartuko dute.

Kontzertuan hari-instrumentuak, haize-instrumentuak zein erritmo-instrumentuak joko dituzte, eta musikariek umeen ulermenera egokitutako piezak interpretatuko dituzte, Mikel Nuñez piano irakaslearen moldaketak lagun. Kontzertuek 25 bat minutuko iraupena izango dute eta eskola ordutegian egingo dituzte. Hurrengoak maiatzaren 13an eta 20an egingo dituzte, egunean birritan, 10:00etan eta 11:15ean.

Eguzkitzako ortu ludikoetan 50 metro karratuko 37 partzela egingo dituzte



Eguzkitzan egingo dituzte ortuak.

E.H. DURANGO

Dagoeneko diseinatuta dago Eguzkitza aldean ortuak egiteko proiektua. Durangoko Udalak ekainean lizitatuko ditu eremua atontzeko lanak. 50 metro karratuko 37 partzela egingo dituzte guztira, 4.300 metro karratuko azalera erabilita.

Erabiltzaileek 50 euroko prezio publikoa ordaindu beharko

dute urtean, eta, ortua lantzeko aukera izateaz gainera, materiala gordetzeko etxola, aldagelak eta landare-materiala birziklatzeko sistema izango dute eskuragarri. Halaber, segurtasuna eta estetika hobetzeko asmoz, eremua zeharkatzen zuen linea elektrikoa jada lurperatuta dagoela jakinarazi du udalak. Gune berria 2026 amaieran martxan ipini gura dute.

Durangoko Udalak urte amaieran hasi gura du Kapitanena berritzen

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak ia 1,6 milioi euroko kreditu aldaketa egin du hainbat proiektu martxan ipini ahal izateko. Egitasmo nabarmenen artean Kapitanena berritzea dago; izan ere, 960.000 euro erabiliko dituzte baserria gizarte etxe bihurtzeko. Durangoko Udalak urte amaieran hasiko ditu lanak. Obrek hamar bat hilabete iraungo dute hasten direnetik.

Lan hauekin baserriaren beheko solairua handituko dute, eremua San Faustoko elkartearen eta bizilagunen zerbitzura ipintzeko.

Beste hainbat proiektu

Bestalde, udalak 174.320 euro erabiliko ditu komun autogarbigarri bat ipintzeko eta Muruetorrek bidegurutzea berrurbanizatzeko, eta 41.500 euro baliatuko ditu "Durangoko nortasunerako eskulturaren diseinua eta instalazioa" egiteko. Era berean, 15.000 euro erabiliko

dituzte Saibi kalea urbanizatzeko proiektua idazteko, eta 18.000 euro garbiketari eta hondakinen bilketari buruzko kontzientziazio kanpaina egiteko. Azkenik, 6.050 euro ipiniko dituzte arratoi kontrako kanpainetarako. Mireia Elkoroiribe alkateak esan du inbertsio horiekin "jendearren beharriaz erantzuten" dabilela Durangoko Udala.



Honela berrituko gura dute Kapitanena.

LABUR-LABUR

Berrikuntzak Gaztegunean

Durangoko Udalak hobekuntzak egin ditu Intxaurrendoko Gaztegunean. Ice hockey mahai bat eta sofa berriak ipini dituzte. Gaztegunea zapatuetan (17:00-20:30) eta domeketan (17:00-20:00) dago zabalik.

Sexu aholkularitza gehiago

Durangoko Sexu Aholkularitza Zerbitzuak martitzenetan eskainiko du zerbitzua, 17:00etatik 19:00etara. Saiotzen parte hartzeko eta orientazioa jasotzeko, aurretiaz hartu behar da hitzordua 644 898 661 whatsappen.

Etxebizitzaren onuradunak

Durangoko Udalak San Faustoko alokairu sozialeko hamasei udal etxebizitza esleitzeko behin-behineko zerrenda argitaratu du. Interesdunek maiatzaren 15era arteko epea dute akatsak zuzentzeko eta dokumentazioa behar den moduan aurkezteko. Etxeak Undatorre eta Jesus Maria Pedrosa kaleetan daude.

Garaik eta Lantziegok senidetzea berrituko dute zapatu honetan

Ekaitz Herrera GARAI

2013tik honako ohiturari eutsita, Garaik eta Lantziegok udal-erri bien arteko senidetzea berrituko dute zapatu honetan. Aurten, arabarrak etorriko dira bisitan. Garaitarrek 11:00etan egingo diete harrera, Momioitioko San Juanen, eta behin hamaiketako eginda, Trumoi-tako gotorlekura joango dira

arabarrei herriko ondarea erakusteko. Behin bisita amaitutakoan, denek herri bazkaria egingo dute, 14:30ean, plazan, musikaz girotuta.

Garaiko Udalak zehaztu duenez, eguraldiak laguntzen ez badu bisita San Migel elizan egingo dute, eta herri bazkaria frontoian. Era berean, udal-erri bietako herritarrek talde ar-

gazkia egingo dute San Migel elizaren ondoan, Garain landaturiko artea eta Lantziegotik ekarritako mugarrira eta mahasiak dauden lekuan.

Hamahiru urteko ohitura

Garaiko eta Lantziegoko udalak 2013an senidetu ziren, udal biek sinaturiko akordioaren bitartez. Hori horrela, urte batean Garaiko herritarrek Lantziegora joaten dira, eta hurrengoan Lantziegokoak Garaia etortzen dira, senidetza akordio hori urtero-urtero berrituta.



luz Lantziegon ateratako argazkia.

Garaiko umeek ortua atontzeko jardunaldia egingo dute hilaren 17an

Ekaitz Herrera GARAI

Garaiko Trumoitte elkarteak umeentzako jardunaldia prestatu du datorren domekarako, maiatzak 17. Jarndunaldia 11:00etan hasiko dute, frontoian. Bertan, umeek kalabaza eta krispeta-arto haziak ereingo dituzte potetxoetan, eta lan horiek amaitu eta gero ortura joango dira eremua txukuntze-

ra eta lurra behar den moduan egokitzen. Behin lan horiek amaituta, kalabaza eta arto poteak etxera eramango dituzte, han hamabost egunean zaintzeko. Ondoren, ekainaren 6an, umeek ortura bueltatuko dira poteetan ernaldutakoak lurtean sartzera. Domekako hitzordua txorimalo berri bat egiteko ere aprobetxatuko dute.



Aldi baterako egonaldiak mesedegarriak dira zaintzailearentzat nahiz mendekotasuna duen adinekoarentzat.



Umeentzako ekintza bat Garaiko frontoian. TRUMOITTE

Katu koloniak zaintzeko herritarrek izendatuko dituzte Zaldibarren

E.H. ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak inskripzio epea zabaldu du herriko katu koloniak zaindu gura dituzten herritarrek izendatzeko. Udalak laguntzaile baimenduak izendatuko ditu, eta, horrenbestez, herritar horiek baino ez dute izango katu koloniak kudeatzeko, animaliak zaintzeko eta eurak kontrolatzeko ardura.

Interesdunek udaletxera jo behar dute eskariak egitera, maiatzaren 15a baino lehenago.

Udalaren araudiaren arabera, baimendutako laguntzaileak katu koloniak mantentzeaz eta garbitzeaz arduratuko dira, baita elikagai egokiaren hornidura kontrolatua egiteaz ere. Era berean, osasuna eta esterilizazioa kontrolatze aldera, udala katuen migrazioa gainbegiratzeaz arduratuko da, baita koloniak baimentzeaz, izapidetzeaz eta katuen ongizaterako tresnak eskaintzeaz ere.

PUBLIERREPORTAJEA

Aldi baterako egonaldiak: atsedena baino askoz gehiago

IMQ Igorco Orue

Badator uda eta, horrekin batera, oporrak. Mendekotasuna duten pertsonak, eta zaintzaileek ere, eguneroko ohikeria hautsi nahi eta behar dute, eta beste-lako bizimoduez gozatu. Horretarako, ezinbestekoa da mendekotasuna duen pertsonak nahiz zaintzaileak aukeran dituzten alternatibak ezagut ditzaten.

Egoitzetako, esaterako IMQ Igorco Orue egoitzako, aldi baterako egonaldiak edo atsedena modu pribatuan edo Aldundiaren bidez egin daitezke. Bi kasuetan, egokiena da aukeratutako egoitzarekin harremanetan jartzera, Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan erregistratuta dagoen galdetza eta haietan sartzeko behar den informazio guztia emateko eskatzea.

Bizkaiko Foru Aldundiaren bitartez egiten bada, hainbat laguntza daude eskura. Adibidez, prestazio ekonomiko baten bidez diruztatuta, egoitza batean aldi baterako sartzea hautatu daiteke, gehienez 30 egutegi-egunez, eta egonaldi hori aldi batean edo bitan egin daiteke.

Adineko egoitzetako aldi baterako egonaldiek edo atsedena hainbat abantaila ekar ditzakete. Lehenik eta behin, IMQ Igorcon adinekoari dagozkion alderdi soziosanitario guztien balorazio geriatriko osoa egiten da (arlo klinikoa, mentala, funtzionala eta soziala).

Emaitzak aztertu ondoren, diziplina anitzeko taldeak tratamendu proposak eta esku hartzeko plan pertsonalizatua diseinatzen ditu. Horrela, gaitasun kognitiboek, funtzionalak eta sozialek hobera egiten dute,

eta, batez ere, beste erabiltzaile batzuekiko elkarreragin soziala areagotzen da.

Egonaldia amaitu ostean, IMQ Igorco Orue egoitzan, Taldeko beste egoitza batzuetan bezala, txosten bat ematen da, etxean jarraitu beharreko jarraibide nagusiak adierazita, adinekoaren gaitasunak ahalik eta handienak izan daitezten eta haren bilakaeran arrisku-faktoreak identifikatzeko.

Aldi baterako egonaldien bidez, zaintzailea indarberritu egiten da, eta zaintza-ingurune bat eza-gutzen du, etorkizunean berriro baliagarria izan dakiokena.

IMQ Igorco Orue

San Miguel de Duda auzoa z/g.
48340. Amorebieta-Etxano (Bizkaia)
94 630 0550

'Arizona' antzezlanaren emanaldiagaz hasiko dute Mañariko Maiatza Kulturala

Biharko obrak Jon Plazaola eta Aitziber Garmendia ditu protagonista

Joseba Derteano MAÑARIA

Asteburu honetan hasiko da Mañariko Maiatza Kulturala, askotariko ekintzez osaturiko kultur egitaraua. Zapatuan, 19:00etan, Arizona antzezlanaren taularatuko dute Kultur Etxean. Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola dira obrako aktoreak. Antzezlan honek AEBetako mugaren inguruko egoera batetik abiatzen den istorioa lan-tzen du, umore beltzaren eta tentsio dramatikoaren bitartez. Pertsonaia biren arteko elkar-riketan oinarrituta, identitate, biziraupena eta gizartearen mugek sortzen dituzten gatazkak ipintzen ditu erdigunean.

Hurrengo egunean, domekan, jai giroa nagusituko da herrian. Izan ere, Kirikiño abesbatzak lagunduta kantu poteoa egingo dute plazan, 12:30ean hasita.



Jon Plazaola eta Aitziber Garmendia, 'Arizona' antzezlanean. JAVIER NAVAL

Astean zehar ere egongo da zegaz gozatu. Batetik, martitzenean, 18:00etan, Garbiñe Bellosok sendabelarren ukenduak egiteko tailerra emango du. Parte hartzaileek sendabelarrekin egindako ukenduen prestaketa tradizio-

nala ezagutzeko aukera izango dute bertan, landareen propietate terapeutikoetan oinarrituta.

Hegaztiei buruzko berbaldia

Aste barruko beste ekimen bat Gorka Valdesek maiatzaren 14an

18:30ean kultur etxean emango duen berbaldia da: *Mañaria eta inguruko hegaztiak ikertzen*. Valdesek hegaztiei eraztunak ipintzen dizkie Aranzadi zientzia elkartearen Hartara, gehiago jakiten dute hegazti horiei buruz. "Jendeak gutxi ezagutzen duen lana da eta horri buruzko azalpenak emango ditugu", esan du Valdesek.

Horrez gainera, Mañaria inguruan txoriei eraztunak ipintzeko proiektu biren berri emango dute. Batetik, Mugarra mendian inguruan mendi-tuntunei ipintzen diete eraztuna. Urte batzuk daramatzate horretan. Bestetik, Bizkaiko erreketan ur-zozoei ipintzen diete eraztuna, eta Mañaria inguruan eta Mañaria erreketan inguruan ere badituzte bikote batzuk identifikatuta. "Kuriostate legez, hegaztien lumen bitartez substantzia kutsatzaileak aztertzen ditugu, batez ere merkurioa, eta Bizkaia osoan ditugun laginetatik Mañari inguruko ur-zozoak dira merkurio mailarik baxue-na dutenak", argitu du Valdesek. Azkenik, eguraldiak laguntzen badu, txori bat harrapatzen ahalginduko dira, ondoren berbal-dian hari eraztuna ipintzeko.

Adin txikiko hamar sahararrek Izurtzan pasatuko dute uda



Izurtzako egonaldia.

J.D. IZURTZA

Río de Oro elkartearen buru-belarri lanean dabil uda Izurtzako aterpetxean pasatuko duten gazte sahararren egonaldia prestatzen. Asteon jakinarazi dutenez, behar bereziak dituzten adin txikiko hamar gazte etorriko dira Tindufeko kanpamenduetatik Izurtzara aurten. Eurretariako bi lehenengoz etorriko direla zehaztu dute. Gainerakoak lehenetik ere egonikoak dira hemen. Denak 7tik 12 urte artekoak dira. Ekainaren amaieran etorriko dira Izurtzara, eta abuztua amaitu arte egongo dira bertan, Río de Oro kideen esanetan.

Elorrioren martxan ipini dute erosketa bonuen aurtengo kanpaina, hilaren 30era arte

Herritarrek deskontuak baliatzeko aukera dute atxikitako establezimenduetan



Elorrioko 26 komertziok bat egin dute kanpainagaz aurten.

J.D. ELORRIO

Elorrioko Udalak eta Elorrioko Merkatarien Elkarteak *Elorrioren bertatik bertara* erosketa bonuen kanpaina abiatu dute, herriko merkataritza indartzeko eta tokiko kontsumoa bultzatzeko

helburuagaz. Kanpaina maiatzaren 30era bitartean egongo da martxan, eta herritarrek deskontu bereziak baliatzeko aukera izango dute atxikitako establezimenduetan, udalak ohar batean informatu duenez.

Aurreko edizioetan legez, 30 euroko erosketa egitean herritarrek 20 euro ordainduko dituzte. 18 urtetik gorako pertsona bakoitzak gehienez bonu bi erabili ahal izango ditu, erosketa bitan banatuta edo erosketa bakarrean aplikatuta; kasu horretan, gutxienez 60 euroko erosketa egin beharko da. Erosketak kanpainara atxikitako saltokietan egin ahal izango dira, establezimendu batean edo bitan, beti ere parte hartzen duten dendetan. Aurten, guztira Elorrioko 26 komertziok bat egin dute kanpainagaz, eta bakoitzak 76 bonu izango ditu herritarren eskura. Bonuen trukea merkatariek kudeatutako aplikazio informatiko baten bitartez egingo da. Horrela, herritarrek NANA aurkeztu besterik ez dute egin beharko dendetan. Ez da beste agiririk beharko.

Urkizuaran kaleko lanak amaituta, paseorako gune berria dute Elorrioren

J.D. ELORRIO

Elorrioko udalak iazko martxoan hasitako Urkizuaran kaleko lanak amaitu ditu. San Anton ermitatik Maderas Gallastegiraino doan tartea eraldaketa handia izan du: espaloiak hobetu, argiztapena berriztu, oinezkoentzako ibilbide berri bat sortu eta ur-bilketa sistema berriztu dute, besteak beste.

Lanen kostua 714.000 eurokoa izan da eta horietatik 506.314 euro Aldundiak ipini ditu, udalak ohar batean azaldu duenez. Oinezkoen segurtasuna hobetzeko, errepidea estutu dute, autoen abiadura murrizte aldera. Bestalde, oinezkoen tartea berria hesiz babestu dute. Irisgarritasuna hobetzeko, zebrabide goratuak ipini dituzte.



Urkizuaran kale eraberritua.

Zenbat ezagutzean duzu Abadiño?

Parte hartu gure lehiaketan eta galderarik
gehien asmatzen dutenen artean...

Bazkari edo afari bat zotz egingo dugu
Abarketeruena jatetxean 🍷

EDONORK PARTE
HARTU DEZAKE!

Maiatzaren 15etik 21era

SARTU, JOKATU ETA IRABAZI OTORDU BAT!



Edurne Maguregi, Ander Zangitu eta Mikel Urrutia.

Abadiñarren ekarpenekin, Etxebizitza Planaren gako nagusiak identifikatuta

Azterketa eginda, udal teknikariek, udal taldeekin eta herritarrekin saioak egitea aurreikusten dute

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Abadiñoko Udalak Etxebizitza Plana lantzeko prozesuari ekin zion urte hasieran. Etxebizitzaren arloan dauden erronka eta beharizan nagusiei modu integralean, koordinatuan eta errealistan erantzuteko asmoz abiatu zuten prozesua. Hori horrela, joan zen astean, Ander Zangitu Hiritik At enpresako arkitektoak plana gauzatzeko egindako azterketaren emaitzak plazaratu zituen. Jakinarazi zuenez, martxoan inkesta bat egin zuten eta herritarren erantzuna "ona" izan zen; par-

te-hartze maila "nabarmena" izan zen, eta euren ekarpenak "oso egokitzat" jo dituzte.

Inkestan 229 herritarrek parte hartu zuten, eta, horien artean, emakumeen presentzia handiagoa izan zen (%57,9). "Jasotako informazioaren zati handi bat emakumezkoen ikuspegitik eraikita dago, eta hori bereziki esanguratsua da", azaldu zuten.

Inkestaren emaitzei dagokienez, etxebizitzaren arazoa Abadiñon izaera estrukturala duen fenomeno delako esan zuten. "Oro har, biztanleriaren zati handi bat etxe-

bizitza egonkorretan bizi bada ere, bada kolektibo esanguratsu bat zailtasunak dituena etxebizitza bat eskuratzeko edo egungo egoerara egokitzeko", argitu zuten arkitektoak. Horrez gainera, gaur egun Abadiñon %29ko emantzipazio maila dagoela gaineratu zuten, eta hau "nahiko baxua" dela zehaztu.

Azterketako datu guztiak kontuan hartuta, gobernu taldeak adierazi du aurrera begirako bide orria markatuta dutela. "Emaitza horiek erakusten dute etxebizitza politiketan gogor lan egiten jarraitu behar dela, etxebizitza eskuratzeko zailtasunei erantzuteko; batez ere, gazteen artean. Beharrezkoa da alokairuaren eskaintza eskuragarriagoa izatea eta udalerriko errealitateetara hobeto egokitutako eredu baterantz aurrera egitea", esan zuten udal gobernu taldeko kideek.



Traña-Matienako jaietako lehenengo asteburuko argazki bat.

Abadiñarrak prest San Prudentzio jaietako bigarren astebururako

M.Z. ABADIÑO

Lehenengo asteburu luzea igarota, abadiñarrak prest daude San Prudentzio jaietako bigarren astebururako. Gaur arratsaldean, esaterako, Txikikaraokea egongo da Traña plazan, eta 18:00etan San Prudentzio esku pilota txapelketako finalak. 20:00etan bertso saioa egongo da Errota Kultur Etxean; Igor Elortza, Onintza Enbeita, Eneko Abasolo 'Abarkas' eta Iruñe Basagoiti arituko dira kantuan. 23:00etan Zirkiñik Bez erromeria egongo da Traña plazan.

Zapatua egun handia izango da herriko gazteentzat, X. Gazte Eguna ospatuko dute eta. 12:30ean Iluntze dantza taldearen

kalejira eta ekitaldia egongo dira Traña plazan. 14:30ean Gazte Eguneko bazkaria egongo dute, eta ondoren kuadrillen arteko jolasak egongo dituzte, Gazte Asanbladak antolatuta. Arratsaldean, 18:30ean hasita, Sakatu elektrotxarangak herriko kaleak girotuko ditu, eta eguna borobiltzeko, 22:00etan, Maruxak, Dj Kuku eta Dj Inshore egongo dira txosnagunean.

Domekan emango diete amaiera jaiari, maiatzak 10, 20:00etan Donien Atxa botata. Lehenago, baina, zenbait ekitaldi egongo da egun osoan; besteak beste, herri kirolak, txistularien kalejira, nagusien bazkaria eta M'Lomp taldearen kalejira.

"Gobernu taldeak esan digu euren aparkalekua ezingo dela egin"

M.Z. ABADIÑO

EAJko Mikel Garaizabalek eta Sara Zearsolok prentsaurrekoa egin zuten joan zen astean, eta jeltzaleek adierazi zuten "oso arduratuta" daudela Traña-Ma-

tiñoko aparkaleku arazoagaz. "Gobernu taldeak orain hiru bat aste jakinarazi zigun euren Traña-Matienan egitea aurreikusten zuten aparkalekua ezingo dela egin, lursailen era-

bilgarritasun faltagaitik. Hau plangintza eta zorroztasun faltaren adibide argia da", azaldu zuten Mikel Garaizabal EAJren bozeramaileak. "17.000 euroko proiektua idatzi zuten, eta orain ezin da egin. Hori diru hori zaborretara bota da", salatu zuten.

Jeltzaleek azaldu zuten, aparkaleku arazoa herritarren kezketariko bat da, eta, beraz, arazo nagusitzat hartzen dute hau. Hori horrela, gobernu taldeari eskatu diote urtebete lehenago euren aurkeztu zuten aparkaleku bertikalari aukera bat emateko. "Arzubiarako guk egin genuen proposamenari heltzeko eskatzen diegu. Aparkaleku bertikala zentzuzko proiektu bat da, eta bideragarria. Eta gu taldean lan egiteko prest gaude", gaineratu zuten EAJren bozeramaileak.

Igor Agirre izango da EAJren alkategai



M.Z. MALLABIA

Mallabiko EAJk iragarri duenez, Igor Agirre izango da euren hautagaia 2027ko udal hauteskundeetan. Jeltzaleak eskerrak eman dizkie alderdikideei, eta etapa honi "gogoz eta arduraz" ekiten diola aitortu du. Agirre 2007an hasi zen Mallabiko Udalean, zinegotzi, eta ondorengo urteetan oposizioan aritu zen. 2015etik Mallabiko alkatea da.



Sara Zearsolo eta Mikel Garaizabal.

Tren pasagunea kentzear Berrizen

M.Z. BERRIZ

Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Sailak jakinarazi duenez, Berrizen Torretxoko trenbide-pasabidea kenduko dute, eta, hori ordezeko, egungo trenbidearen azpiko pasabide bat erabiliko dute. Lanek 2,3 milioi euroko aurrekontua izango dute eta 12 hilabeteko epean egin beharko dira.



Torretxoko pasagunea.

Udaberriko Jaialdia maiatzaren 9an, Umerrik antolatuta

M.Z. BERRIZ

Umerri Eskola Aktiboak Udaberriko Jaialdia ospatuko du bihar, maiatzak 9. Familiei eta herritar guztiei zuzendutako jardunaldia izango da. Jai hau eskolaren hamabosgarren urteurrena ospatzeko ekintzen barrukoa da. 09:30ean emango diote hasiera egunari, eta bazkari autogestionatuagaz amaituko dute.

Ondare eskultorikoen kontrako ekintza



BERRIZKO UDALA.

M.Z. BERRIZ

Ezezagun batzuek ekintza bandaliko bat egin dute Berrizko ondare eskultorikoaren kontra. Udalak sare sozialetan jakinarazi duenez, beltzarga biren zurezko eskultura moztuta agertu da orain dela gutxi. Irudien burua ebaki dute, zehatz esanda. Udalak gogor gaitzetsi du eraso, eta hiri-altzariei egindako kalte materialaz aparte, kulturaren, ahalegin artistikoaren eta herriko nortasunaren kontrako eraso zuzena dela azpimarratu du.

Batzata-saltsa kuir ikastaroa zapatu honetan Atxondon

M.Z. ATXONDO

Zapatuan batzata-saltsa kuir ikastaroa emango dute Atxondon. 10:30etik 13:00etara bitartean izango da, gimnasio zaharrean, eta Nerea Hernandez izango da irakaslea. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, batzata eta saltsa estiloak landuko dituzte, baina heteroaraueetatik kanpora. Hau da, "gizon eta emakume rola egon beharrean, lider eta follower rola egongo dira. Tailerra emakumei* zuzenduta egongo dela azaldu dute, eta dantza bi hauek espazio eroso batean ikastea izango dela helburua. Tailerra euskaraz egingo da, eta bertan parte hartzeko euskara ulertzea nahikoa izango dela jakinarazi dute.

Atxondoko II. Pilota Goxua Txapelketa martxa onean doa

M.Z. ATXONDO

Apirilean ekin zioten Atxondoko II. Pilota Goxua txapelketari, eta, antolatzaileen berbetan, txapelketa martxa onean doa eta partiduetan giro paregabea izaten ari da.

Txapelketa ligaxka fasean dago orain. Aurreko asteburuetan legez, oraingoan ere sei partidu jokatuko dira. Partidu batzuk barikuan 18:00etan izango dira, eta besteak domekan 17:00etan.

Txapelketako finalerdiak datorren hilean jokatuko dira, ekainean, Axpeko San Joan jaietan. Pilota Goxua Txapelketako finalak Apatako San Pedro jaietan jokatuko dira.



ONINTZA OIARTZABAL MAISTERRENA | 21 URTE | OIARTZUN
GASTRONOMIA ETA SUKALDARITZAKO ARTEEN GRADUA | 4. MAILAN

"Praktikekin lan mundua ezagutzeko aukera izan dut"



Mondragon Unibertsitatea

Definitu apur bat zeure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Txiki txikitatik Elizalde Herri eskolan ikasi izan dut eta batxilergora arte IES Xabier Zubiri Manteora joan behar izan nuen. Pertsona alaia, mugitua, kuriositate handikoa eta langilea naizela uste dut. Zaletasunen artean tipikoenak, kirola asko gustatzen zait, mendira joatea, lagunekin egotea eta, noski, kuzinatzea.

Zergatik aukeratu zenuen Gastronomía eta Sukaldaritza Arteak gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Batxilergoan zientzien adarretik nentorren, eta ingenieritza, kimika edo biologia ikastea nuen buruan. Aldi berean, etxean asteburuero postreak egiten nituen eta asko gustatzen zitzaidan. Nire gertuko lagun bat graduan sartu zen eta berak kontatzen zidan zer egiten zuten klasean eta asko erakartzen zidan. Ikusi nuen gradu honek

alde zientifikoa eta nire zaleztasuna uztartzen zituela, eta horregatik aukeratu nuen. Gure inguruan gradu hau eskaintzen duen bakarra denez, Basque Culinary Center-era etortzea erabaki nuen.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Egia esan, 4 urte hauetan oso ongi pasatu dut eta aldi berean izugarri ikasi dudala sentitzen dut. Oso desberdina da gradu hau, urte hauetan pertsona bezala asko aldatu naiz: praktikekin lan mundua ezagutzeko aukera izan dut, kanpora joateko ingelesa ikasiz, komunikazio abiltzadak landu ditut eta konfiantza irabazi dut, aurkezpen ugari baititugu.

Nola definituko zenuke BCCn jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Oso desberdina. Hasieran arraroa egin zitzaidan baina ohitu naiz. Oso praktikoa da: sektoreko profesionalen hitzaldiak, azterketa gutxi eta lan asko, talde lanean. Gastronomía ikuspegi askotatik lantzen da eta

merkatuan dauden aukera asko ezagutzen ditugu.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Lantzen diren puntu desberdin guztiak, ia egunero irteera berri bat ikusten dut. Gustatzen zait ikasten duguna gertuko izatea: gastronomía gure egunerokoan dago, aisialdian, erosketetan eta etxean. Horretaz ohartzea eta lehen ikusten ez nituen gauzak ikustea asko baloratzen dut. Gainera, etorkizunean bide askotatik joateko aukera dagoela ikustea eta sektorean dagoen pasioa nabaritzea.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?


Momentuz, ikerketa munduan jarraitzeko gogoia daukat. Hala ere, graduak eskaintzen dituen aukerak hainbeste direnez, ez daukat guztiz argi. Hori abantaila handia da, irteera profesional ugari eskaintzen baititu.

Okm batzen gaituen distantzia

ANBOTOKIDE MAIATZEKO ZOZKETAK



Xiberu tabernan
(Zornotza)
bi gosari bikoitz.



Areatza bainuetxea.
Gau bat logela bikoitza, gosaria + zirkuitu termala 2 lagunentzat.



Aukan izozkiak.
6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



BASA take away
jate txeko KMO haragidun eta ogi artisaudun hamburgesa eta bi saltsadun patata errazioa opari. Bariku eta zapatu gauetan gozatzeko.



Uxarto Sagardotegian
birentzako otordua.

EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE
ETA PARTE HARTU
GURE ZOZKETETAN!



Belgikako Banda Quetzal taldeak Mexikoko herri musika eta ukitu indigenak plazaratuko ditu Zornotzan. BANDA QUETZAL

Haizetarak Hungariako, Galiziako eta Belgikako taldeak elkartuko ditu

Kaleko musika taldeen jaialdia Zornotzako kaleetara bueltatuko da ekainaren 19tik 21era. 10 talde lehiatuko dira

Ekaitz Herrera ZORNOTZA

Haizetara jaialdia ekainaren 19an, 20an eta 21ean bueltatuko da Zornotzara, nazioarteko kale-musikariek onena eskaintzeko. Aurten hamar talde lehiatuko dira: Mexikoko herri musika eta doinu indigenak nahasten dituen Banda Quetzal (Belgika), New Orleanseko *brass band* tradizioalean inspiratutako Les Roger Brass Band (Tolosa, Okzitania) eta Mamabrass (Madril, Espainia), jazz eta swing kutsuko Seven Seas Orchestra (Italia), Balkanetako musika

erromaniarretik edaten duen Fanfarria Taquikardia (Vigo, Galizia), soinu energikodun Forbi Brass Band taldea (Hungaria), cumbia, rocka eta psikodelia nahasten dituen Los Justicieros (Madril, Espainia), doinu afroak eta tropikalak plazaratzen dituen Super Panela (Tolosa, Okzitania) eta Balkanetako musika tradizionala berrinterpretatzen duen Barna Sabor Trubaca (Bartzelona, Herrialde Katalanak). Guztira, 18 herrialdeko 48 banda aurkeztu dira aurtengo lehiaketara.

Bizkaiko eta Nafarroako taldeak ere egon dira horien artean, baina ez dute hautaketa fasea pasatzea lortu. Gainerako izen emateak herrialde hauetatik jaso dituzte: Italiatik, Portugalitik, Mexikotik, Kongotik, AEBetatik, Erresuma Batutik, Herbehereetatik, Hungariatik, Txiletik, Filipinetatik, Costa Ricatik, Errumaniatik, Kanadatik, Argentinatik, Belgikatik, Alemaniatik eta Espainiako eta Frantziako estatuetatik.

Hemeretzigarren aldia

Haizetara ondo sustraitutako jaialdia da Zornotzan. Kaleko musika banden lehiaketak bere hemeretzigarren edizioa izango du aurtengoa. Iaz, The Brass Funkeys talde britaniarrak irabazi zuen txapelketa, eta Iruñeko Goxo txarangak publikoaren saria eskuratu zuen.

Harrison eta Singing Munch garaile



ZORNOTZAKO UDALA

E.H. ZORNOTZA

Zornotzako hamburgesa txapelketako sarituak Harrison eta Singing Munch establezimenduak izan dira. Lehenengoak epaimahaiaren saria irabazi du (1.000 euro), eta bigarrenak herri bozketaren saria (500 euro). Jennifer Cardoso eta Victor Mejias epaimahaiko kideak "harrituta" geratu ziren Zornotzako hamburgesekin. Epaileek "zaporeen berrikuntza eta mokaduen aurkezpena" txalotu zituzten. Hamburgesa txapelketan hamazortzi tabernak parte hartu dute.

Zornotzako musika eskolan matrikulazioa egiteko epea, zabalik

E.H. ZORNOTZA

Zubiaur musika eskolak 2026-2027 ikasturterako matrikulazio epea zabaldu du. Deialdia ikasle berriei zein lehendik eskolan dabiltzanei zuzenduta dago. Matrikula Internetez egiteko Zornotzako Udaren atarira jo beharko dute, eta 'izen-emateak' ataleko inprimakia bete. Bestalde, aurrez aurre inskribatu gura dutenek musika eskolara bertaratu beharko dute. Musika eskaintzan, instrumentu klasikoak (pianoa, biolina, flauta...), herri musika (trikitia, txistua, alboka, txalaparta) eta musika modernoa (gitarra elektrikoa, bateria...) daude. Dantzan, hastapen maila, sormenezko dantza eta hip hop eta funky estiloak.

UEMAk arnaguneei eusteko "urgentziakko neurriak" aurkeztuko ditu Otxandion

Udalerrri Euskaldunen Eguna ospatuko dute datorren maiatzaren 16an

Aitziber Basauri OTXANDIO

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) Euskararen arnaguneei bizi duten egoeraz ohartarazi du Otxandion, Udalerrri Euskaldunen Eguna aurkezteko ekitaldian: "Azken ikerketa eta datuek alarma gorriak piztu dituzte. Egoera iraultzeko ezer egin ezean, arnaguneei desagertu egin daitezke laster eta udalerrri euskaldunetan gainbehera agerikoa izango da". Horren aurrean, esnatzera deitu du, Euskal Herriko hainbat eragileguz batera. Eguerdiko ekitaldi nagusian, UEMAk "arnaguneei eusteko urgentziakko neurriak" aurkeztuko ditu, eta, bide batez, omenaldia egingo diete euskara ikasten dabiltzan otxandiarrei.

Udalerrri euskaldunak eta arnaguneei "ezinbestekoak" izanik, horien ekarpena eta garrantzia gogoratuko dituzte maia-

tzaren 16an. Ekimena erakunde publikoen, eragileen eta herritarren arteko elkarlana bultzatzeko jaio zen, udalerrri euskaldunak "sendotzeko" eta herritarren kontzientzian eragiteko. Maider Arejolaleiba Otxandioko

euskara zinegotziaren berbetan, "ilusioz aritu gara lanean, herriko elkarte eta eragileekin batera, eta ilusio horretara batzeko deialdia egin gura diegu euskaldun guztiei". Egun osoko egitaraua antolatu dute.



UEMA Egunaren aurkezpena, Otxandion. UEMA

EGITARAUA

Maiatzak 16, zapatua

- **10:00** Diana, Kalerik Kale txistulariekin.
- **10:30** UEMAre batzar nagusia, Mainondon.
- **11:30** Herri kirolak, haurrentzat, plazan.
- **13:00** Ekitaldia, plazan.
- **13:45** Udal bandagaz kalejira.
- **15:00** Bazkari herrikoia (Txartela hartzeko azken eguna, maiatzaren 8a). Bazkalostean, Kalaka egurrezko jolasak, umeentzako tailerrak, Airatugaz Emoionk! galdera-erantzunen jokoa...
- **18:00** Kalejira Basogaira, Urbiribil dultzaineroekin.
- **18:30** Zazpi harrien inaugurazio ekitaldia, Basogainen. Bertsolariak, Oihandi abesbatza, Urduri dantza taldea, Kaleik Kale txistulariak...
- **19:15** Kalejira, Basogaitik Plazara.
- **20:00** Errigorako produktuen dastatzea, plazan.
- **21:00** Lorratz taldeagaz erromeria, plazan.

Munduko Arrozen Eguna ospatuko dute maiatzaren 16an



Munduko Arrozen Eguna. ARTXIBOA

A.B. IURRETA

Hurrengo asteburuan, maiatzaren 16an, Munduko Arrozen Eguna ospatuko dute Iurretan. Arrozak prestatzeko sutegiak isiotuta hasiko dute eguna, 11:00etan, Askondoko aterpean. Ondoren, herri bazkaria eta lehiaketako arrozak dastatzeko aukera ere eskainiko dute. Horretarako txartelak egunean bertan ipiniko dituzte salgai. Bazkarirako txartelak hiru euroan salduko dituzte, eta lehiaketako arrozak jateko txartelak euro bian. Te eta pasta dastatzea, tailerrak eta musika ere egongo dira.

Lan bide
HEZIKETA

arizmendi
ikastola **PRO**

Aurrematrikula

Maiatzaren
4tik 22ra



HASIERAKO
lanbide heziketa

- Sukaldaritza
- Etxebizitza mantentze lanak
- Informatika eta **BERRIA!** komunikazioetarako oinarizko profesionala



ERDI mailako
lanbide heziketa

- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Mikroinformatika sistemak eta sareak
- Osasun larrialdiak



GOI mailako
lanbide heziketa

- Gizarte eta kirol animazioaren irakaskuntza

Izena eman! 

www.arizmendi.eus

Rementeria hileko Anbotokidea


Anbotokide izateak begi-bistako abantailak ditu eta horixe da, hain zuzen ere, Urtzi Rementeria-riaren kasua. Rementeriak Anbotoren inprimakiko galderei erantzun die eta Lacturaleren esneki-sorta ezin ederragoa irabazi du. Zuk ere parte hartu gura duzu? Anbotokide bazara, bete inprimakia, eta ez bazara, lehenengo egin zaitetz Anbotokide.



DURANGALDEA ASTEON

Egunean Behineko 'Anboto Durangaldea' taldera batu eta jokatu Tokikom Ligan

DURANGALDEA Maiatzaren 11tik uztailaren 12ra Egunean Behin joakoaren 21. denboraldia jokatu da, eta oraingoa nobedadeekin dator. Txapelketa bederazi asteko lehia izango da eta Tokikom Ligan egongo da. Hau hamar eskualderen arteko lehia bat izango da, eta Durangaldea zure laguntza behar du. Beraz, sartu zure Egunean Behineko profileran, ezarpenetan zure datuak bete eta batu 'Anboto Durangaldea' taldera. Parte hartzaile guztien artean astero sariak zozkatuko ditugu.



Leire Uribek eta Ibai Cebrianek marka bikainak lortu dituzte Alpeetan

DURANGALDEA Mendi korrikalari otxandiarra eta durangarra Frantziako estatuko Alpeetan lehiatu dira asteburuan, Euskal Selektzioagaz. Uribe hamazazpigarren geratu da emakumezkoetan, eta Cebrian hogeita laugarren gizonzkoetan.



EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA.

GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - Iurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefona / Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

POLITIKAN

Haur eta nerabeei galdetu behar zaie



JESICA RUIZ
PSE-EE

Durangoko Udalak datozen urteetako haur eta nerabeei begirako udal politikak diseinatzeko prozesua landu dugu. 2025. urteko datuen arabera, Durangon 0 eta 17 urte bitartean 4.811 pertsona daude, hau da, %15,9.

Udalerriko haur eta nerabeen egungo egoeraren azterketa osatzeko, besteak beste, Durangoko ikastetxeetako ikasleei zuzendutako inkesta bat egin da. 507 inkesta erantzun dira. Galdetegi hainbat gauzei buruz galdetu diegu: harremanak eta ongizate emozionala, aisialdia, osasuna, udal zerbitzu eta ekipamenduen inguruko balorazioa, entzuna izateko eskubidea eta parte hartzea, bizi baldintzak, indarkeria eta diskriminazioa, espazio publiko eta hiriaren inguruko pertzepzioa. Egindako galdera batzuk hauek dira:

- Oro har, non sentitzen duzu dagoela zure bizitza une honetan?
- Uste duzu zure iritzia kontuan hartzen dela ala ezentzuna sentitzen zara...?
- Inoiz ikusi edo bizi dituzu borroak eskolan, ikaskideak iraintzen zure eskolan, lagunak iraintzen kalean, sare sozialetan edo mugikorraren bidez norbait iraintzen edo zirikatzen?

Deneriko erantzunak eman dituzte eta datorren astean, maiatzaren 12an (18:00etan), emaitzak aurkeztuko ditugu pleno aretoan. Oso datu interesgarriak emango dira.

anboto

ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902



Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta.

Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,

Joseba Derteano Bilbao,

Maialen Zuazubiskar

Gallastegi, Aritz Maldonado

Zabala.

Marketina

Deñe Izaga Yeregui.

Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko
Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kultura Sailak diruz lagundua



ONGIZATE GEHIGARRIA



"Prebentzioa babesleku ezinbestekoa da gainezka bizi garen garaiotan"

ALVARO PEÑARANDA GARCIA DURANGO HORTZ KLINIKA

Peñarandak aho osasunaren ikuspegi integrala eskaintzen die herritarrei Durango Hertz Klinikari. Zazpi urteotan bezeroek emandako konfiantza eskertu du

Ekaitz Herrera DURANGO

Haginak, hortzoia, haginkadaren forma, mingaina, aho baruko ehunak... gutxi gorabehera horiek izan daitezke dentista baten lan arlo nagusiak, baina Alvaro Peñaranda hortik urrutirago doa. Durango hagin klinikako arduradunak gure bizi ohituren erakusleiho legez ulertzen du ahoa, eta, horregaitik, era integralean artatzen du bere klinikara doan bezeroa. Aho osasuna zaintzeko modurik onena gure bizi ohiturak zaintzea dela aldarrikatzen du.

Dentista legez aurkeztuko zintuzket irakurleen aurrean, baina iruditzen zait definizio hori motz geratu daitekeela. Zelan definituko zenuke zure burua?

Dentista naiz, aho patologietan espezializatutako dentista. Eta egunerokotasunean kirurgia eta aho inguruak birsortzeko lanak egiten ditut gehienbat. Baina, beharbada, honako honetara definitu dezake hobeto nire eginkizuna: jendeari haginak mantentzen eta bizi kalitatea irabazten laguntzen diot, abiapuntu legez ahoa erabilita.

Konbentzitu nauzu, definizio osatuagoa deritzot horri.

Izan ere, herritarren ahoa zaintzea da nire lana, baina iruditzen zait hortik haragoko balio erantsi bat eskaintzen dudala: jendeari gertatzen zaiona ulertarazten ahalegintzen naiz, dena bizi ohiturekin lotuta dagoela ikusi dezaten.

Ahoak gure bizimodu ohituren berri eman dezake?

Ahoa gure digestio aparatuen hasiera da, eta horrela ulertu behar dugu bere garrantzia. Pentsa, gure neuronen %80 hesteetan dago. Horregaitik, sabelean ara-

zoren bat dagoenean, handituta-edo dagoenean, konplikatu izaten da berehalako neurriak hartzea. Batzuek honako hau esaten didate: "Asko zaintzen dut neure burua", baina gero eurekin berbetan hasten naiz eta...

...eta ez zara iritzi berekoa.

Horregaitik ahalegintzen naiz kontzientzia handitzen, sinetsita nagoelako gure osasuna gure jarreraren ondorio dela. Dakizkidan ontasun guztiak partekatzen ahalegintzen naiz, azken finean, kontzientzia handitzeko eta medikuntzak eta medikuntza osagarriak eskaini dezaketena dena era integral batean eskaintzeko.

Adibideren bat ipini dezakezu?

Patologiaren ezagutza eta esperientzia klinikoa berebizikoak dira diagnostiko goiztiar baterako. Adibidez, lesio bat badago eta lesio hori autoimmunea bada, funtsezkoa da diagnostiko goiztiarra egitea, erregistro fotografikoa egitea eta autozaintzarako irizpideak ematea. Izan ere, lesiorik onena desagertzen dena da, ez kontrolatzen dena. Ez dago osasun arazorik bizi estiloko pautak aldatuta hobetzen ez denik.

Eta hori guzti hori zelan azalera-tzen da ahoan?



Alvaro Peñarandak Durangoko Artekalen du hertz klinika

Ainara Urreta Jainaga

Oinetako patologiak
Oinaren azterketa biomekanikoa
Neurrira egindako plantilak

Herriko gudarien kalea, 10 behea
DURANGO
Tel.: 946 215 404

URALDE
HORTZ KLINIKA

Uralde 1, behea
48215, IURRETA, Bizkaia

667 097 575 · 946 550 055
info@klinikauralde.com
www.klinikauralde.com

ZAINDU HAGIN KLINIKA
Odontologia orokorra eta espezialitateak

Umeentzako odontologia • Ortodontzia (P.A.D.I. programa)
Implanteak • Periodontzia • Aho-estetika • Protesiak • etab.

Mari Tere Zamalloa Juaristi
Periodontzia espezializatua • Col.1005

Ferialeku, 1 • Abadiño
Tel.: 94 465 73 42

clínicadental hortzclinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA • INPLANTOLOGIA • KIRURGIA • ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) • ETA IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA • PADI • HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

RPS: 145-13



Ahoan gorputzeko beste edozein ataletan baino lehenago agertzen dira zantzuak. Horrenbestez, ahoan ageri direnei baliorik ematen ez badiegu, lesio txiki horiek diagnostikatzen ez baditugu, denboragaz gorputzeko beste punturen batean irtengo dira. Beti esaten dut hortzak gure lan arloaren %10 direla. Horrenbestez, zergaitik deitzen digute *dentista*? Ba, hain zuzen ere, hortzak konpontzen lan egin dugulako beti. Zer gertatuko litzateke intentsitate honegaz gure bizitza, aisia, atsenda, kudeatu barik jarraitzen badugu? Ba geroago eta lan gehiago izango genukeela. Horregaitik, jendeari ikuspegi berri bat eskaini behar horretan sinesten dut, kontzientzia bat sortze horretan. Harmonia eskaini behar diogu herritarrari, bere bizimoduak errespetatuta, eta, jakina, ilusioa eta itxaropena eskainita. Horrek

"Mundu digitalean bizita, gure pultsioek errealismoa galdu dutela dirudi"

ariketa sanitario bat egitea eskatzen digu egunero, denok gaudelako geroago eta nekatuago egunetik egunera. Gainezka bizi gara. Alde horretatik, prebentzioa babesleku ezinbestekoa da. Osasuna erronka handia zen lehen, eta gaur egun erronka handiagoa da.

Gainezka bizi garelako diozu. Horren zantzurik ere ikusten duzu hemen?

Osasunaren galera bizi dugu, eta joera hori agerikoagoa da belaunaldi gazteetan. Aurrekoan, hona etorritako gazte batek esan zidan bere burua zaintzen zuela, baina okelarrik, arrainik, frutarik eta berdurarik jaten ote zuen galdetu nionean, ez zuela apenas jaten esan zidan. Halakoetan konturatzen zara ezer aldatu barik mantendu gura dugula gure bizimoduak. Eta hori ez da eskolan ikasten, etxean baino. Azken finean, osasunaren galera honek etikaren galera bategaz du lotura, batuta doaz. Izan ere, gaur egun atsegin dugun eta gustuko dugun horretan mantendu behar dugu etengabe. Dopamina putzu batean. Eta, jakina, gurea minari loturiko ogibidea denez eta herritarrek mina saihestu

gura dutenez, jendeak saihestu egiten gaitu dentistok. Gure lana jendeari akonpainamendu hori egitea da, bere bizimoduak errespetatuta, kontzientzia hartzen laguntzea.

Elikaduraz harago, ariketa fisikoa, bizimodu sedentarioa... horiek ere islatzen dira ahoan?

Bai. Geroago eta adin goiztiaragoetan, gainera. Zer dabil gertatzen? Ahoa oso organo aktiboa da, mugitzen dugun organo bakarrenerarikoa, eta gorputzean aktibitate hori ez badago, hori guztia ahoan islatzen da. Gauza bigunak bakarrik jaten hasi gara. Jada ez dugu mastekatzen. Dena da biguna, dena samurra. Eta horri guztia sortu zaizkigun *konplexuak* gehitu behar zaizkio. Sare sozialetan erakusten ditugun ezagarrak gura ditugu. Estetika arloko esaldirik erabiliena "Nire *feedeko* irudi horren antza izan gura dut" da gaur egun. Bitxia da bizi dugun unea: mundu digitalean bizita, gure pultsioek errealismoa galdu dute. Maita dezagun geure burua garen moduan. Bizitza bat eta bakarra dugu, eta, beraz, erreparatu diezaiogun testuinguru horri.

inika.



DURANGO
Clinica dental - Horts klinika

ODONTOLOGIA INTEGRATIBOA
Ahotik lortu zure osasuna

Artekale, 37 DURANGO
Tel.: 94 604 14 76 · gerencia@clinicadentaldurango.com
www.clinicadentaldurango.com



R.P.S.172/06

PODOLOGOA
Minerva Olmedo

- HIPERKERATOSIA (oinetako gogorguneak)
- AZAZKALETAKO ARAZOAK ETA ABAR
- MIAKETA BIOMEKANIKOA
- POSTUROLOGIA
- OIN DIABETIKOA
- OIN-ZOLARAKO EUSKARRIAK (barne-zolak)

ORDUA ESKATU BEHAR DA LEHENAGO

Txabiena kalea, etxeba 2 (Sarrera Juan M Altuna kaletik)
Tel: 94 620 13 61 DURANGO - Mugikorra: 607 410 562
molmedor@gmail.com · www.mipodologo.com

R.P.S.172/06 CoL77



MENDI FISIOTERAPIA & OSTEOPATIA

- GAREZURREKO, ERRAIETAKO ETA PEDIATRIAKO OSTEOPATIA.
- ARNAS FISIOTERAPIA ETA FISIOTERAPIA KARDIOBASKULARRA PEDIATRIAN ETA NEUROLOGIAN.
- DRAINATZE LINFATIKOA ETA ZAINETAKOA.
- ERREHABILITAZIOA

IKER GARAMENDI BURUAGA
Kurutzaga kalea 15 behea
DURANGO

94 603 21 17 / 688 64 44 07
info@mendifisioterapia.com
www.mendifisioterapia.com

R.P.S. 96/16 CoL090



Zure irribarrea gure helburua

LQ.

LEIRE QUESADA IZA
horts klinika

Kanpatorrosteta 5 Bajo, Durango
944651845 / 688732990
www.leirequesada.com

"Taldean korrika egin gura duen edonor da ongi etorria Bizi Korrika Taldera"

MIKEL ARROITAONANDIA MANSILLA BIZI KORRIKA TALDEKO ARDURADUNA

Maialen Zuazubiskar DURANGO

Mikel Arroitaonandia zaldibartarrak korrika egitea bizi du, kirola egitea bizi du. Eta bere afizio hori transmititzeko eta korrika egiteko grina hori pizteko, Bizi Korrika Taldea sortu du. **Urri amaieran proiektu berri bat martxan ipini zenuen, Bizi Korrika Taldea. Zer dela eta erabaki zenuen hau sortzea?**

Lehiaketetatik kanpora Durango falta bat zegoela igarri genuen eta talde bat sortu gura nuen, korrika eginda gozatzeko. Ondo pasatzeko taldea da eta edonork du lekua hemen, hasiberriek zein korrika lehendik dabiltzanek. Korrika egiteko leku segurua bat sortu gura nuen.

Sarritan, erresistentziako kirolean, ohituta gaude bakoitzak bere kabuz entrenatzera, bakar-kaldu handia egitera. Baina ez gaude ohituta taldean joatera,

berriketan ibili eta momentuaz disfrutatzen. Eta Bizi Korrika Taldea horretarako gunea da, lagunekin joan, jendea ezagutu eta korrika egiteko gunea.

Beraz, diozunez, taldean denentzat dago lekua.

Bai, talde zabala da eta gura duena etorri daiteke gure artera. Taldean korrika egin gura duen edonor da ongi etorria Bizi Korrika Taldera. Badago jendea mañila handia duena eta badaude hasi berriak ere. Taldea egokitu egiten da eta astiroen doanaren erritmora joaten gara; inongo arazorik barik moldatzen gara. Izan ere, horixe da helburua, astiroen doana ere eroso sentitzea gure artean. Taldeko partaide izateko ez da mañila zehatzik behar. **Taldean korrika egiteaz gainera, egun batzuetan entrenamendu espezifikoa ere egiten duzue, serieak, eskaileretan gora eta behera...**

Bai, astelehen batzuetan Astolarraino lasai-lasai joaten gara eta gero serieak egiten ditugu bertan. Hori bakoitzaren erritmora moldatzen ditugu, eta gero denok elkarregaz bueltatzen gara. Eta bai, eskaileretan ere egiten ditugu saio batzuk. **Taldeko parte izan gura badut, nora jo dezaket?**

Astelehenetan elkartzeko gara, 19:00etan, Santa Anan. Ez da inon izena eman behar eta ez da ezer ordaindu behar, etorri eta listo. Ni apur bat lehenago joaten ahalegintzen naiz, lehenengo datozenei harrera egiteko batez ere. Normalean, jendea beldur apur batez etortzen da eta kostatu egiten zaie pauso hori ematea. Komentatzen dutenagaitik, askotan lotsagaitik edo beldurragaitik ez dira etortzen. Baliteke izatea taldean korrika egiteko mañila nahikorik



Mikel Arroitaonandia behean, eskuman bigarrena.

ez dutela uste dutelako, baina daudela lasai, erritmo guztieta-egokitzen gara eta. Hori bai, behin pausoa emanda, jendea berriro etortzen da.

Dagoeneko hile batzuk joan dira proiektua martxan ipini zenuenetik. Zelako balorazioa egiten duzue orokorrean?

Balorazio positiboa, batez ere jendea animatu egiten delako eta behin baino gehiagotan datorre-

lako. Normalean, 10-15 lagun elkartzeko gara astelehenero, eta kopuru polita dela esango nuke. Gainera, badago modu hoberik astelehenero? Normalean, astelehenetan nagituta egoten gara, asteari ekiteko gogo gutxigaz, baina korrika egitera joanda, barre batzuk egin, ondo pasatu eta indarberrituta eta ezin gurturago bueltatzen gara etxera. Ezin daiteke gehiagorik eskatu.


XARMA
Fisioterapia eta Osteopatia
Martine Usabel Lizundia

INDAR ARIKETAK
ARIKETA TERAPEUTIKOAK
HIPOPRESIBOAK
HAURDUNALDI KLASEAK
Eskaintzen dira

☎ 673 589 190
@ xarmafisioterapia
✉ fisioterapiaxarma@gmail.com
📍 Trañabarren 27,
Traña-Matiena, Abadiño


pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D - 48200 Durango
pzubizarreta@gmail.com
Tel.: 946 550 049 / 695 784 963


HOBETU
Fisioterapia & Podología

EKOGRAFIK ETA INDIBA BIDEZKO TRATAMENDUAK
P/ info@hobetu.es · T/ 946 582 444
K/ Buzkantz kalea, 2 · 48230 Elorrio
www.hobetu.es


UGATZ
UMEAREN GARAPENERAKO LAGUNTZA ZENTROA

ARRETA GOIZTIARRA /
PSIKOMOTRIZITATEA
FISIOTERAPIA PEDIATRIKOA /
LOGOPEDIA
PSIKOLOGIA / PSIKOPEDAGOGIA
TERAPIA OKUPAZIONALA

☎ 944 668 370 ☎ 615 782 090 ✉ ugatz@hotmail.es
Juan de Olazarán, 1 - Durango
 ugatz_zentroa

MUSIKA

"Musika zaletasun izatetik lanbide izatera pasatu daitekeen ikusi gura dut"

AMAIUR AZKARATE PALACIOS
MUSIKARIA

Amaiurtxuk kontzertu berezia emango du Durangon, BBK Livek antolatutako 'Herrian' egitarauaren barruan

Jone Guenetxea DURANGO

Bakarkako ibilbidea buru-belarri prestatzen dabil. Baina grabazioetan etenaldia egingo du, Durangon, bere herrian, kontzertua emateko. Amaiurtxuk (Durango, 1996) ilusioz bizi du momentua eta aukera guztiak aprobetxatzen dabil musikaren aldeko apustua egiteko.

Zer esan gura du zuretzat Durangon BBK Livek aterkipean jotzeak?

Oraindino sinistu ezinik nago. Herrian horrelako aukera bat izatea ez nuen sekula pentsatuko. Amets bat errealitate bihurtzea da niretzat.

Zelako kontzertua aurreikusten duzu?

Orain arte egin ditudan kontzertuekin alderatuta, oso ezberdina izango da. Izan ere, proiektu berriagaz irtengo naiz. Oso 'ni' izango da, pertsonalitate handikoa. Bestalde, erromeria talde batean abesten dudanez, gitarristak eta bateria-jotzaileak

nigaz joko dute Durangoko kontzertuan.

Proiektu berria lantzen zabilta. Zein fasetan dago?

Iaz, bakarlarri legez proiektu bat abiatzea erabaki nuen. Amaiurtxu izenagaz aritu naiz orain arte, baina bizitza aldaketa bat da hau eta Maiur izenagaz jarraituko dut. Aurrerapausoa eta aldaketa da, biak.

Zertan datza disko berria?

Urtarrilean *Non zaude?* abestia kaleratu nuen. Youtubean entzungai dago Amaiurtxu izenagaz. Spotyfin ere bai. Aste honetan bigarren abestia kalera-tuko dut. Durangoko Azokarako zortzi abesti kalean izatea da helburua. Dena prest daukat, baina grabatzen nabil.

Erromerien mundutik zatoz. Zelan sentitzen zara musikaren esparru horretan?

Oso erromeriazalea naiz. Euskal musika beti gustatu izan zait. Baina horrelako talde batean



Amaiurtxu.

hiru orduz abesten eta dantzan aritzea uste nuena baino gogorragoa da. Ikasteko oso aukera ona da.

Zelan zabaldu zitzaizkizun atea erromerietan aritzeko?

Sare sozialetan nire musika proiektuen berri ematen dut. Iaz pertsona batek proposamena egin zidan sareetatik, eta baiezkoa eman nion. Horrela hasi nintzen erromerietan abesten. Ospitale batean lan egiten dut, hezitzaile psikiatria sailean, eta uda partean lan biak uztartzea gatxa da.

Zeintzuk dira zure inspirazio iturri musika arloan?

Beti gustatu izan zait La Oreja de Van Gogh, Amaral, Ken Zazpi, Zea Mays... Nire txikitako diskorik gustukoena Erramun Martikorenarena zen. Musika mota ezberdinak gustuko ditut. Heavy metala ere gustuko dut. Gainera, familiar musika munduan hazi naiz.

Musikari lotutako familia duzu?

Nire lehengusina Maria Amolategi, esate baterako, abeslaria da eta beti izan da nire erreferente. ETBn abestu izan du.

'Herrian'

Durangon, maiatzaren 30ean.

- Amaiurtxu
- Eider
- Gar
- Eitxi
- Kiliki
- Los Frenomnes Rebeldes
- Mala Gestión
- Mississippi Queen and The Wet Dogs
- Mujeres
- Olatz Salvador
- Oslo Ovnie
- PI L.T.
- Santa Salut Wau y Los Arrrghs!!!

Benita Uribarrena, Ibaizabal eta Ezkurdi parkea.

Nire neba musika ekoizlea eta teknikaria da Madrilen. Aitak ere beti abestu izan du Orfeoian.

Modelo lanetan ere aritu zara.

Aktore izateko ikasketak egin nituen eta modelo legez ere egin ditut kolaborazioak. Ez dakit geldirik egoten (barrez). Hala ere, orain esaten didate zentratu egin behar naizela, lan horien guztien artean bat aukeratu eta horren aldeko apustua egiteko.

Zure ibilbide artistikoa zelan bideratzea gustatuko litzaizuke?

Ikusi gura dut momentu honetan musika zaletasun izatetik lanbide izatera pasatu daitekeen. Nire norabidea zehaztu beharko dut. Disko berria ere horrela deituko da: *Nire norabidea*. Proiektuan sinisten eta disfrutatzen ahalegintzen nabil.

Anbotogaz jokatzek saria dakar!

Parte hartu EguneanBehin-eko Tokikom Ligan ANBOTO (DURANGALDEA) taldeagaz (maiatzaren 11tik aurrera ikusgai)

TOKIKOM LIGA

egunean behin?

OSATU ZURE PROFILA ETA IRABAZI!



ARTEA

Jorge Oteizak Durangon egitekoa zuen erakusketa berreskuratu dute

Zazpi urteko prozesuaren ondoren, Arte eta Historia Museoak artista gipuzkoarraren 8 eskultura ipini ditu ikusgai

Ekaitz Herrera DURANGO

Jorge Oteizak Durangorako erakusketa bat prestatu zuen 1970ean, udalerrirako propio. Urte hartako maiatzean aurkeztu behar zuen, zantzu guztien arabera, Ezkurdiko aretoan. Baina erakusketa ez zen sekula ere egin, eta ahanzturan egon da orain arte, harik eta Durangoko Arte eta Historia Museoak, 55 urtera, proiektua berregin eta jendaurrean ipini duen arte. Erakusketa bisitagai dago dagoeneko eta halantxik egongo da abuztura arte.

Obrak *Espazioaren hustura* du izenburu, eta zortzi eskulturak osatzen dute muina. Bost lanek kuboaren hustura irudikatzen dute, eta beste bik esferaren hutsunea. Zortzigarren pieza *Piedra movediza* (harri mugikorra) da. Lanok museoko bigarren solairuan atondu dituzte, eta beheko solairuan Oteizari buruzko azalpenak, haren audioak eta beste elementu batzuk ipini dituzte ikusgai.

Garazi Arrizabalaga museoko zuzendariak azpimarratu duenez, erakusketa berregitea zazpi urteko prozesua izan da. 2019an ekin zioten bideari, David Pavo



Erakusketako eskultoretariko bat.

eskultorearen eta Arte Ederretako doktoarearen dei batez. Pavok Oteizaren audio batzuk deskubritu zituen, eta audio haietako batean Oteizak Durangon erakusketa bat egitekoa zuela jakin. Hari mutur horri tiraka, Oteizak zer asmo zuen dezifratzea lortu dute apurka-apurka, eta haren lana Durangon atontzea. Paule Sanchez zinegotziak nabarmendu du "une historikoa" dela, "inoiz gauzatu ez zena askoren ekarpenari eskerrak" osatu delako. Zirkulua itxi da.



Sweet Rage talde abadiñarra da lehiaketan parte hartuko duen taldeetariko bat.

MUSIKA

Izar Records lehiaketak 30 musika talderen talentua plazaratuko du

Ekaitz Herrera DURANGO

Izar Records grabazio estudioak eta Durangoko Udalak Plateruena Izar Records musika lehiaketa antolatuko dute talde eta bakarlarientzat. 40 taldek eman dute izena eta, antolatzaileen berbetan, 30ek gairiditu dute "lehiaketan parte hartzeko eskatzen den gutxieneko kalitate maila". Horiek guztiek zuzenekoetan erakutsiko dituzte euren proposamen musikalak, uztaillaren 24ra arte antolatu diren kontzertuetan. 10 kontzertu-sorta izango dira guztira, eta finala, aurreikuspenen arabera, Goienkaleko jaietan jokatu da. Sari nagusia 10 abestiko LP baten grabazioa izango da, eta bigarrena 5 abestiko EPa grabatzea.

Durangaldeko talderik onenak ere saria jasoko du: 600 euro, single baten grabazioa eta 2026ko sanfaustoetan kontzertua jotzea. Eszenaraterik onenaren saria ere egongo da. Talde irabazleak single eta bideoklip bana grabatuko du. Azkenik, soinuak onenaren Txirula Sariak musikarientzako materiala eskainiko du.

Udal iturriek azaldu dutenez, "aniztasuna" da lehiaketako indarguneetariko bat, rockaren askotariko aldaerak egongo dira eta entzungai: hard punka, stonerra, metala, funk musika... 30 taldeetatik 14k euskaraz abesten dute, eta bostek euskara eta gaztelania tarikatzen dituzte.

KONTZERTUEN EGUTEGIA:

Maiatzak 16

- Koba Live jaialdian: Alex de Benito Project, Shut You On eta Etorkizun Beltza. (11:30 - 14:30)

Ekainak 13

- Muruetatorren: Ur, Leven Slave eta Blackmoon (21:00-00:00)

Ekainak 20

- Otamotzenan: Golden belni, I see explosions eta Sweet Rage (21:00-24:00)

Ekainak 27

- Munduko Arrozen jaietan: Folk rippers, Momak eta Territorio norte (15:30-18:30)

Ekainak 28

- Tabiran: The Soulbar, Dale Kaligula, eta Lorraine (12:00-15:00)

Uztailak 3

- Platerueneko terrazan: El callejón del gato, Painapple eta Scusi Boys (21:00-23:00)

Uztailak 10

- Platerueneko terrazan: Bixonte Dort, Deborah Riff eta El barbas (20:00-23:00)

Uztailak 17

- Platerueneko terrazan: Eraldatzen, Dorre eta Patxi Luque (20:00-23:00)

Uztailak 24

- Platerueneko terrazan: Soporte Vital Básico, República eta Alerta Petrov (17:30-20:30)

GAI LIBREAN



IGOR GALARZA INTXAUSTI
KAZETARIA

Berba potoloak

Berba potoloak sarri erabiltzen ditugu, ezta? Nik behintzat sarri erabiltzen ditut, batzuetan testuinguruak hala eskatu barik. Baina urteak aurrera joan ahala, bazoaz ikusten zerk merezi duen arreta handiagoa edo txikiagoa, edo bizitzako momentu horretan zer den beharrezkoa eta zer ez. Denok egiten dugu adinean aurrera, ez gara Morgan Freeman; 89 urterekin zein 40rekin, hark 70 dituela dirudi. Eta noski, bizitzako momentu batean gertatuko da: pertsonak zenduko dira, eta zendu arte ez gara ohartuko bizitzak hartu duen abiaduraz.

Behin jende horrek Lurra uzten duenean, hasten gara adinaz gogoratzen, edo gure bizitzetan izan zuen eragina azpimarratzen. Ariketa hori beharbada gutxiegi egiten dugu hurbilekoekin. Behintzat, egiten

dugun gutxietan, kontu ederrak azaltzen dira memoriatik mahai gainera. Aldiz, pertsonaia publikoak izan direnekin, gurata ala gura barik, asteak eta asteak irauten digu bere iraganaren errebasoak. Ezin daitezke guztiak alderatu, baina denek dute komunean formula bat: lehen erreakzioan, pertsona horrekiko beti entzungo ditugu berba onak.

Ez diot zendutako batzuek ez dutenik merezi. Hain zuzen, beti irtetzen da memoriaren atzetik hausnarke ta bera: "Ez dugu jakin bizirik zegoen artean bere lana behar bezala eskertzen eta goraiatzeko". Garai-koetxearen kasuan, politikari guztiek dituzte berba onak, baita Euskal Herriari eraso egiten dieten horiek ere. Egun batzuek, iraganak berriz hartu ditu hedabideak, Garaikoetxea goraiatzeko, eta bere lana

eredu bilakatzeko. Eta ez naiz ni izango hori ondo dagoen ala ez ebatziko duena. Baina argi dut orainaldian borrokatzen ari diren aktibistek ere merezi dutela aipamen hori, borroka hori amaitu arte itxaron barik.

Aste honetan bertan, Ajuria Eneatik kilometro batzuetara, goraiatzeko irudia ikusi dugu. Gazte euskaltzale batzuek aurre egingo diote Frantziako Estatuari eta bertako hezkuntza sistemari. Ekainaren 12an euskararen aldeko pultsua egingo dute, matematika azterketan. Beharrezkoa da iragana ez ahaztea, baina oraina eta, batez ere, etorkizuna ditugu jokoan. Berba potoloak dira beharbada, baina Garaikoetxeak txalo egingo lieke gazte horiei. Egin bieziaie Euskal Herriak txalo eta bultza gazte horiei.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO.
946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 8

- **ABADIÑO 'Felix Iturriaga'** Abadiñoako txirindulariari buruzko erakusketa. Errota kultur etxean, maiatzaren 10era bitartean.
- **BERRIZ 'Gu ere bagara!'** Getxoko LGTBQ+ adineko pertsonen bizipenak, errealitateak eta ahotsak biltzen dituen erakusketa, Ines Bermejo artistaren eta Julen Nafarrete kazetariaren eskutik. Berrizko Kultur Etxean, maiatzaren 19ra arte.
- **DURANGO 'Artistaren aztarna'** J.L. Martinez de Antoñanaren omenez, Durangaldeko Artisten Elkarrekin erakusketa antolatuta du. Ezkurdi aretoan, maiatzaren 17ra bitartean.
- **DURANGO 'Espazioaren hustura'** Jorge Oteizaren lanak. Arte eta Historia Museoa, abuztuaren 30era bitartean.
- **IURRETA 'Bizia. Lehoi erregea'** Navarra Produccionesen ikuskizuna. Kultur etxean, 18:00etan.
- **ELORRIO 'Escape Room'** Txalo Produkzioak konpainiaren antzezlanak. Arriola antzokian, 20:00etan.

- **ZALDIBAR Jaiak iragartzeko kartel lehiaketa.** Irabazleak 250 euro lortuko ditu, eta 2.ak 150 euro. 100 euroko saria egongo da 14 urtetik beherakoentzat. Udaletxean aurkeztu daitezke lanak edo kultura@zaldibar.eus helbide elektronikora bidali, maiatzaren 14ra bitartean.
- **ZALDIBAR 'Kultur etxearen prozesuak: beste esperientzia batzuk'** Berbaldia. Saioa Elejabarrieta Lemoako alkate ohiak Kotxepin kultur etxearen esperientzia gerturatuko du eta Iñaki Queralt Errenteriako zinegotziak Lekuona kultur fabrikarean. Liburutegi zaharrean, 18:00etan.

ZAPATUA 9

- **ABADIÑO XI. Amaraun elektronikoa** Musika elektronikoa. Amaraun Arte Fabrika, 14:00etan.
- **ABADIÑO Euskal Herriko ardoen dastaketa.** Herriola Hotelean, 12:00etan.
- **BERRIZ Udaberriko Jaialdia** Hegaztiei eratzuna ipintzea, Gorka Valdesen

- eskutik, 09:30ean. Yoga familiar (Yoga Itaka), 10:00etan. Amaia Egidazu ipuin kontalaria 11:00etan (3-6 urte) eta 11:45ean (1-3 urte). Berbaldia: 'Umerri ezagutu', 12:45ean. Bazkari autogestionatua, 14:00etan. Umerri eskola aktiboan.
- **DURANGO 'Adjudikazioa. Qué barbaridad!'** Arrapaladan antzerki taldearen antzezlanak. San Agustin kulturgunean, 19:00etan.
- **ELORRIO Rebel Noise + Estutu + Sustrai Berriak** Kontzertua. Elorrixoko Gaztetxean, 22:00etan.
- **IURRETA Kontzertua** Radio Rebelde Covers taldea, Auzorik Auzo egitarauaren barruan. Ondoren, luntx xumea auzokoentzat. San Andres auzoan, 18:00etan.
- **MAÑARIA 'Arizona'** Txalo Produkzioak konpainiaren lana, Aitziber Garmendiagaz eta Jon Plazaolagaz. Kultur Etxean, 19:00etan.
- **ZORNOTZA 'Sentsazioen musika'** Zornotzako Musika Bandaren kontzertua. Zornotza Aretoan, 20:00etan.

DOMEKA 10

- **ABADIÑO Las Ratas** Kontzertua. Amaraun Arte Fabrika, 13:30ean.

- **ABADIÑO Azoka** Hileko 2. domekako azoka, Txanporta plazan (10:00-14:00).
- **BERRIZ XXVI. Umeen Euskal Jaia** Dantza taldeen harrera, 11:00etan. Kalejira, herriko kaleetan zehar, 11:30ean. Bazkaltzera joateko batuko dira dantzariak frontoian, 13:30ean. Triki-poteoa, 14:00etan. Ondoren, bazkaria frontoian. Alardea, Olakueta plazan, 17:00etan.
- **DURANGO Mugarri Eguna** Durangoko mugariak ezagutzeko ibilbidea, Alpino Tabira Mendizale taldeak antolatuta. Aurten, Durango eta lurreta bereizten dituzten mugariak bisitatuko dituzte. Izena eman behar da (www.alpino-tabira.org). Andra Mariko elizpean, 08:30ean.
- **DURANGO Ibilaldia familiar** Eusferia ekimenaren eskutik, Larrinagatxu auzotik ibilaldia. Amaieran hamaiketako egongo da. San Roke plazatik, 10:30ean.
- **MAÑARIA Kantua** Kirikiño Abesbatzak lagunduta, kantu poteoa. Plazan, 12:30ean.

MAIATZAK 11

- **DURANGO Berbaldiak** 'Euskara sustatzeko baliabideak' (euskara ulertzen duten gurasoei zuzenduta) eta '¿Cómo

ayudar con las tareas escolares si no sé euskera?' (euskara ulertzen ez duten gurasoei zuzenduta). Udal euskaltegian, 17:30ean.

MARTITZENA 12

- **MAÑARIA Tailerra** Sendabelarren ukenduak egiteko tailerra, Garbiñe Bellosok zuzenduta. Errekondo tabeman, 18:00etan.

EGUAZTENA 13

- **ELORRIO 'Erresistentziaren ahotsak basamortuan'** Ikus-entzunezkoa, Lajwad elkarrekin eskutik, Kainabera elkarrekin antolatutako berbaldi zikloaren barruan. Ondoren, Euskadiko saharar ordezkariak berbaldia emango du eta Fitoskins taldeak *Basamortu hotza* abestia joko du. Ateneoan, 18:30ean.

EGUENA 14

- **DURANGO Sukaldaritza tailerra** Amillena Arrazolako Bentako arduradunek gidatutako tailerra. Merkatu Berrian, 18:00etan.
- **MAÑARIA 'Mañaria eta inguruko hegaztiak ikertzen'** Goka Valdesek berbaldia emango du. Kultur etxean, 18:30ean.

San Prudentzio ABADIÑO / TRAÑA-MATIENA

MAIATZAK 8

- **17:00 Txikikaraoketa** Traña plazan.
- **18:00 San Prudentzio esku pilota txapelketako finala,** Axtxiki Pilota Klubak antolatuta.
- **20:00 Bertso saioa** Errota Kultur Etxean. **Bertsolariak: Igor Elortza, Onintza Enbeita, Eneko Abasolo 'Abarkas' eta Iruñe Basagoiti. Gai jartzailea: Igor Galarza.** Gonbiteak eskuragarri Errota Kultur Etxean apirilaren

20tik aurrera (gehienez 4 sarrera pertsonako).
• **23:00 Erromeria** Traña Plazan:
• *Zirkinik Bez!*

MAIATZAK 9 GAZTE EGUNA

- **12:30 Iluntze dantza taldearen kalejira eta ekitaldia** Traña plazan.
- **14:30 Gazte Eguneako bazkaria** Traña plazan.
- **Ondoren, kuadrillen arteko jolasak.** Euria bada, eskolako aterpean. Traña-Matienako Gazte Asanbladak antolatuta.
- **18:30 Kalejira Sakatu taldeagaz,**

Traña-Matienako Gazte Asanbladak antolatuta.
• **22:00 Kontzertua** Traña Plazan:
• *Maruxak*
• *Dj Kuku*
• *Dj Inshore*

MAIATZAK 10

- **10:00 Txistularien kalejira Txanbolin taldeagaz.**
- **12:00 Herri kirolak** Traña plazan. Euria bada, eskolako aterpean.
- **12:45 Jaizale txistulari elkarrekin kontzertua,** elizan.
- **14:00 Nagusien bazkaria** frontoian. **Ondoren, Sua bikotearen ekitaldia.**

- **17:00 Tute txapelketa** Taberna Zarran.
- **18:00 M'Lomp taldearen kalejira.**
- **20:00 Donien Atxa bota**

San Trokaz ABADIÑO / ZELAIETA

MAIATZAK 12 SANTO DOMINGO

- **19:00 GERBASen kalejira txistulariekin,** eta dantzarien ekitaldia San Trokaz plazan (azken entsegu).

MAIATZAK 15 SAN TROKAZ

- **13:00 Talde Batuak dantza taldearen eta Txanbolin txistu taldearen ekitaldia** San Trokaz plazan.
- **18:00 Familientzako kontzertua** Txanporta plazan: **Txiki rock.**
- **19:00 Kontzertuak** Gaztetxean.
• *Turbot*
• *Ainke*
- **22:00 Erromeria** Txanporta plazan:
• *Laprast*

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Amarga navidad
Domeka 10: 19:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Alta Costura
Barikua 8: 20:30.
Zapata 9: 18:00.
Domeka 10: 19:30.
Astelehena 11: 18:00
Martitzena 12: 20:15.
Bajo tus pies
Barikua 8: 18:00.
Zapata 9: 20:30.
Domeka 10: 18:00.
Astelehena 11: 20:15.
Martitzena 12: 18:00.
Mortal Kombate 2 (euskaraz)
Barikua 8: 18:00.
Zapata 9: 16:45.
Domeka 10: 17:00.
Mortal Kombate 2 (gaztelaniaz)
Barikua 8: 20:30.
Zapata 9: 19:00, 21:30.
Domeka 10: 19:30.
Astelehena 11: 18:00, 20:15.
Martitzena 12: 18:00, 20:15.
Eguaztena 13: 19:00.
Las ovejas detectives
Barikua 8: 18:00, 20:30.
Zapata 9: 16:45, 19:00, 21:30.
Domeka 10: 17:00, 20:00.
Astelehena 11: 18:00, 20:15.
Martitzena 12: 18:00, 20:15.
Eguaztena 13: 19:00.
Lucia di Lammermoor
Eguaztena 13: 19:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Incontrolable
Zapata 9: 20:00.
Domeka 10: 20:00.
Astelehena 11: 20:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Altas capacidades
Barikua 8: 20:00.
Domeka 10: 20:00.
Astelehena 11: 20:15.
Gangster Txikia
Domeka 10: 17:00.
La buena hija
Martitzena 12: 20:15.



FUTBOLA

SD Amorebietak Errege Koparako sailkapena lortuta amaitu du denboraldia

Aitor Zulaika urdinen entrenatzaileak denboraldi "ona" izan dela baloratu du

Joseba Derteano ZORNOTZA

SD Amorebietak amaitu du aurtengo denboraldia. Joan zen domekan jokatu zuen Bigarren Federazio Mailako azken partidua, eta irabazi egin zuen Mutivera taldearen zelaian: 0-2. Garaipen horri eskerrak, seigarren tokira salto egin zuen sailkapenean, eta Errege Koparako sailkatu zen. Datu horiek mahai gainean daudela, denboraldi ona izan al da? Aitor Zulaika entrenatzaileak baietz uste du, denboraldi "ona" izan dela, baina "oso ona izateko apurtxo bat falta" izan zaiela ere zehaztu du. Edozelan ere, "gustura eta harro gaude egindako lanagaz", gaineratu du.

Errege Koparako sailkapenak aho zapore gozoa utzi die zaleei, azken uneko lorpena izan delako. Amorebietak etxeko lanak egin zituen Nafarroan, Multive-



SD Amorebietako taldea ligako azken partidua amaitu eta gero. AMOREBIETA

raren aurka, baina hori ez zen nahikoa izan. Ebrok bere neurketa galtzea behar zuen eta, urdinentzat zorionez, UD Logroñes 0-3 nagusitu zen Aragoiko taldearen zelaian. Partidua- ren amaiera berezia izan zen,

beste arrazoi batetik ere: Mikel Arzallusen eta Odei Onaindiaren agurragaitik. Biek futbola uzteko asmoa dute, eta, besoetan hartuta, goratu egin zituzten zelaian. Ospakizunak aurrera jarraitu zuen aldagele-

WATERPOLOA

Zornotzako jokalariek gazteak podiumean Espainiako txapelketan



Domina irabazi duten gazteak.

J.D. ZORNOTZA

Euskadiko Selektzioa Mallorcan lehiatu den haur kategoriako Espainiako waterpolo txapelketan aritu da oraintsu. Amorebieta-Etxano waterpolo taldeko hainbat gazte selektzioagaz aritu dira eta emaitza bikainak lortu dituzte. Libe Zarazuak eta Malen de Castrok zilarrezko domina irabazi dute nesketan, eta Markel Larruzeak eta Ager Santamariak brontzekoa mutiletan. Lau gazteei Zornotzako waterpolo taldeko beste izen bat ere gehitu behar zaie: Euskadiko Selektzioagaz aritu den Unai Casas entrenatzailea.

FUTBOLA

Beteranoen futbol ligako txapelduna Zornotzan erabakiko da, asteburuan

Lehiatuko diren sei taldeetatik bi eskualdekoak dira: Hazi Berriak eta Erein



Hazi Berriak taldeko kideak ekimenaren antolaketan aritu dira.

J.D. ZORNOTZA

Zornotzak beteranoen futbol liga nazionalako hirugarren eta azken fasea hartuko du asteburu honetan. Txolon zelaian sei talde lehiatuko dira, eurretari-ko bi zornotzarrak: Hazi Berriak

eta Erein. Garaikurra irabazteko faborito nagusia Alcobendas talde madrildarra da, lehenengo fase bien ondoren lider dagoelako. Seikotea Castelló, Palmeral eta Pucelanas taldeek osatuko dute.

Talde guztiak Zelaieta parkean elkartuko dira zapatuan, 09:00etan. Eguraldiak laguntzen badu, elkarregaz joango dira Txolon zelairaino. Goizeko partiduak 10:00etan hasiko dira, eta arratsaldekoak 16:30ean. Domekan hiru partidu jokatu dira, 10:30ean hasita. Azkenengoa, 13:00etan hasiko dena, Hazi Berriak eta Ereinen arteko derbia izango da. Ondoren, sari bana-keta egingo dute eta ligako txapeldunak garaikurra jasoko du.

Futbol festa

Antolatzaileek jai giroagaz uztartu gura dute futbola. Horrela, mikrofonoa hartuta, Izan Inurri elkarteko kideek girotuko dituzte egun biak. Ekimeneko errifa ere eskuragarri egongo da, hainbat sarigaz: txapeldunak sinatutako baloia eta bazkaria Autzaganen jatetxean, besteak beste.

ERRUGBIA

Betsaide Elorriok kanporaketetako finalerdia jokatuko du Arrasaten

J.D. ELORRIO

Gizonen errugbiko Euskal Liga azken txanpan sartu da. Liga erregularra amaituta, lau talde lehiatuko dira txapelduna nor den erabakitzeko, eta eurretari-ko bat eskualdekoa da: Betsaide Elorrio. Talde elorriarra lider geratu da ligan, eta Kanpanzar Arrasate laugarren sailkatuaren kontra jokatuko du finalerdia.

Joaneko partidua Arrasaten da, zapatuan, 16:30ean. Itzuliko neurketa Elorrioren izango da, maiatzaren 16an, 18:00etan.

Emakumeetan, Elorrioko, Urgozoko eta Arrasateko neskek osaturiko Geurea taldea Euskal Ligako lider dago liga amaitzear dela, eta kanporaketa jokatuko du. Kasu honetan, maiatzaren 17an hasiko dira kanporaketak.



Betsaide Elorrio taldeko errugbilariak ligako partidu batean. ELORRIO RUGBY TALDEA

PILOTA

Zubizarreta eta Murua buruz buru arituko dira Iurretan

J.D. IURRETA

Iurretako Kepa Arroitauregi pilotalekuak pilota jaialdi profesional bat hartuko du gaur, 20:45ean. Lehenengo partiduan, Amianok eta Morgaetxebarriak Rekalderen eta Eskuzaren aurka jokatuko dute. Partidurik inportanteena bigarrena izango da, Zubizarreta III.aren eta Muruaren arteko buruz burukoa. Serie B txapelketako finalerdietara sailkatzeko lehian dabilta biak. Biak garaipen banagaz daude B multzoan.

Multzo horretan, Amianok jokaturiko partidu biak irabazi ditu eta dagoeneko sailkatuta dago finalerdia jokatzen. Joan zen asteburuan, Muruari irabazi zion: 17-22. Bestalde, Zubizarretak erraz menderatu zuen Senar: 22-11.



Zubizarreta, partidu batean. BAIKO

ERRUGBIA

DRTren errugbi topaketan baturiko dirua Río de Oro elkarteari emango diote aurten

Urtero legez, eskualdeko hainbat ikastetxek bat egin dute DRTren ekimenagaz

J.D. DURANGO

Durango Rugby Taldeak Rugby Tag topaketaren 14. aldia egin du datorren astean. Ekimenaren helburua umeak eta gazteak errugbira erakartzea eta ikastetxeekin hartu-emanak lantzea da, ekimenaren bultzatzaileek azaldu dutenez.

Ekimena elkartasunagaz lotzen dute urtero. Aurten baturiko dirua Río de Oro elkarteak NASMA proiekturako erabiliko dute. Proiektuaren helburua da zenbait gazte sahararri berba egiteko gaitasuna garatzen laguntzea. Izan ere, Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetako gazte batzuek entzumen arazoak dituzte. Horietariko batzuek Izurtzan pasatzen dute uda, eta egonaldian dauden bitartean audifonoak ipintzen dizkiete; ondoren, Tindufera bueltatzen dira. NASMA proiektuaren bitartez, hango hezitzaileei logopedia arloko formakuntza eskaintzea da asmoa, gazte sahararrek aukera gehiago izan dezaten hizkuntza garatzeko. Horretarako, logopedak Tindufera joango dira prestakuntza ematera.

Proiektuak beste adar bat ere badu, kasu honetan GAES Fun-



Durango Rugby Taldeko aurkezpena. LUIS ITURRIOZ

dazioagaz elkarlanean. Haiek ere bidaiatu izan dute inoiz Tindufera Río de Oro kideekin batera, gazte batzuei audifonoak ipintzeko eta lehendik zituztenei berrikuspenak egiteko.

1.500 bat gazte

Aurreko aldietan, Rugby Tag topaketak 1.500 bat gazte batu ditu, eta aurten ere kopuru horren bueltan egotea itxaroten dute. Urtero legez, Arripausueta errugbi zelaian izango da ekimena. Lehenengo saioak maiatzaren 12an, 13an eta 14an

izango dira. Saio horietan Kurutzia ikastolako, Landako eskolako, eta Nevers, San Antonio, San Jose Jeusitak eta Zabalarra ikastetxeetako gazteak batuko dira. Ondoren, maiatzaren 19an eta 20an bigarren saio bat egongo da Durangoko Institutuko eta Abadiñoko Institutuko gazteekin. Arripausuetan batzen diren gazteek Rugby Tag modalitatea probatuko dute. Jokalariak gerrian daramatzaten zintak elkarri kentzean datza modalitatea. Ez dago kontakturik.

ESKUBALOIA

Eskubaloi festa eta final bi bihar Landako kiroldegian

J.D. DURANGO

Zapatu honetan, eskubaloia protagonista izango da beste behin ere Durangaldean. Apirilean, Traña-Matienako kiroldegiak Bizkaiko eta Gipuzkoako ligetako bi talderik onenak batu zituen Euskal Ligara igotzeko partiduan. Orain, Durango Landako Kiroldegiak hartuko du lekukoa, haur kategoriako Bizkaiko finalekin. Abagune hori aprobetxatuta, Ibaizabal Eskubaloi Taldeak eta Bizkaiko Federazioak eskubaloia inguruko festa antolatu dute, hainbat erakunderen laguntzagaz. 10:30etik 11:30era hainbat jolas egingo dute, musikaz lagunduta. Finalei dagokienez, nesketan Muskizek eta Kukullaga Etxebarri neurtuko dituzte indarrak, 09:30ean. Mutilen finala Trapagan eta Basauri taldeen artekoa da. 12:00etan izango da.



Basauri, Matienako finaleko irabazlea.

JOKALDIA

AITOR ARABIURRUTIA OBREGON
TRINKETA

Munduko txapeldun

Gutxi esan ahal dute munduko txapeldun izatea lortu dutela. Garaipen hauek betirako izaten dira eta unibertsitate titulu bat curriculumean geratzen den bezala geratzen dira norberaren bizi ibilbidean, betirako.

Bada, Durangaldeko lau pilotarik munduko txapeldun izatea lortu dute apirilean Argentinan jokatutako Joko-zuzenen pilota txapelketan. Lau pilotari hauek Egoitz Amantegi abadiñarra, Lier Arrien zornotzarra, Ainhoa Ruiz de Infante otxandiarra eta Ibai Arroitauregi iurretarra izan dira.

Joko zuzenak pilota modalitate zaharrenak dira, Euskal Herrian azken urteetan izan den bultzadaren ostean errekupeazio fasean daudenak eta Europako zein munduko beste txoko askotan jokatzen direnak. Esan dezakegu euskal selekzioaren aurkari nagusiak valenziarrak, herbeeretarrak eta belgikarrak direla, oro har.

Euskal pilotaren historia, oinarri eta sustrai dira joko zuzenak, Euskal Herriko kirol eta kulturaren ondare preziatua. XIX. mendearen erdialdean paretaren kontra jokatzen hasi zirenean, garrantzia galtzen joan ziren ia desagertzen puntura iritsi arte. Gaur egun Joko zuzenetan 500 pilotari baino gehiago ari dira praktikan Euskal Herrian, modu ofizialean.

"Durangaldeko lau pilotarik munduko txapeldun izatea lortu dute Joko zuzenen pilota txapelketan"

Berbagai ditugun modalitate hauek gehiago ezagutze aldera, hauexek izango lirateke modalitate bakoitzaren ezaugarri orokorrak:

- Aurrez aurre ipinitako bi pilotari talde aritzen dira, bi zatitan banaturik dagoen eremu batean. Ez da paretarik erabiltzen, haren laguntzagaz pilota bueltatzeko ez bada.

- Talde batek besteari botatzen dio pilota (eskuz edo tresnaz), eremua erdibitzen duen marra edo sarea gaindituz, kintzea egin artean.

-Kintzeka eta jokoa zenbatzen dira tantoak: 15-30-40 eta jokoa.

Espero dezagun hau bide polit baten hasiera besterik ez izatea eta etorkizunean horrelako emaitza bikain gehiago izatea. Zorionak pilotariei eta selekziokide guztiei, bejondeizuela!

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI

KO
PA

GUARDIAKO BOTIKAK

MAIATZAK 8, BARIKUA

09:00-09:00

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

MAIATZAK 9, ZAPATUA

09:00-09:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

MAIATZAK 10, DOMEKA

09:00-09:00

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

MAIATZAK 11, ASTELEHENA

09:00-09:00

Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

MAIATZAK 12, MARTITZENA

09:00-09:00

Bazan, Uribarri 5 - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

MAIATZAK 13, EGUAZTENA

09:00-09:00

De Diego, Intxaurreondo 22. - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

MAIATZAK 14, EGUENA

09:00-09:00

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak daude zerrendan.

22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK



Felisa

Amama Felisak 100 urte egin ditu. Gure herriko erreferente bizia da, mende bat opariz beterikoa. Zorionak, amama, zure bihotzagatik, indarragatik eta herriari emandako maitasunagatik. Zure mendeurrena guztion ospakizuna da. Jarrai ezazu urte gehiago egiten gurekin. Zorionak!



Izei

Zorionak, Izei! Urtea kolpez kolpe pasatu arren bizi-bizi heldu zara zure 11. urtebetetzera. Mosu eta besarkada handi bat maite zaitugun danon partez eta unibertsoaren parte guztietatik!

GOZATU
GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663

gozatudurango@gmail.com

661 401 400

Gozatu Gozotegia

gozatugozotegia



Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean gozatu gozotegiko **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.
- Mezua bidali agenda@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
- Etorri zaitetz Anbotoren ordezkari zara edo deitu 946 232 523 telefonora.

Smurfit
Westrock
Central Forestal

+55 urte Euskadiko
pinudiak zaintzen

Smurfit
Westrock
Nervión

Etorkizun hobe baterako
enbalaje iraunkorrak

INMOBILIARIAK

 <p>F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 - DURANGO www.inmoetxetxo.com</p>	 <p>Sanagustinalde, 4 - 1. ezk. - 48200 DURANGO</p>	 <p>Askatasun etorb. 10 - DURANGO - 946 816 666 www.inmoduranguesado.com inmoduranguesado@gmail.com</p>	 <p>Barrenkalea, 15 behe - DURANGO Tel: 946 816 423 - www.fernandouribe.es</p>
 <p>C.E.E= G 298.000 €</p>	<p>ETXEBIZITZAK SALGAI</p> <p>DURANGO ZUMALAKARREGI 235 m2. Durango erdigunean. Zoragarria. MONTEBIDEO Berriztatze. 175m2, 6. solairuan. Balkoia. 60 m2, 7. solairuan. Ikuspegi ederrak. MONTEBIDEO 150 m2. 4 logela. Handia. 2 kotxerentzako garaje itxia. FRAY JUAN DE ZUMARRAGA 180 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. 3 balkoi. Berriztatze. FRANTZISKO IBARRA 3 logela, egongela balkoiarekin, komuna eta sukaldea. 100 m2-ko terraza handia. GOIENKALEA 65 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia. KURUTZIAGA 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Berriztatze. BARRENKALEA Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua. IURRETA DANTZARI 3 logela. Argitsua. 145.000 €.</p> <p>LURSAILAK SALGAI URRUTXUA 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.</p>	 <p>C. E. E.: E. 148.000€</p>	<p>BERRIAK</p> <p>BERRIZ Bidegain kalea: Duplexa. 3 logela, sukaldea, 2 egongela eta 3 komun. Terraza. Igogailua. 2 garaje eta trastelekua. 450.000 € / E.E.Z=Bidean</p>
 <p>C.E.E=G 45.000 €</p>	<p>BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI IURRETA Fauste auzoa. Bifamiliarra. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua. Prezio ezin hobea. IURRETA Baserri erdia saltzen da San Markos auzoan. Teilatua berriztatua. Gainontzekoa berriztatze. ABADIÑO Etxezurin kokatua. 300 m2. Berriztatze. Lursailarekin. Ganbara. BERRIZ Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatze. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz. MAÑARIA 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.</p>	<p>DURANGO SAN FAUSTO 47,66m2. Egongela-sukaldea (jantzia), jangela, 2 logela eta komuna duxarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Aparkatzeko erraztasuna. ITE-a pasatutakoa.</p>  <p>C.E.E.=E 164.000 €</p>	<p>DURANGO ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta 2 komun. 240.000 € / E.E.Z=E igogailu obra erosle gain izanez gero, saltzaileen gain izanez gero 270.000 €. ANTSO EZTEGIZ: 3 logela, sukaldea eta egongela. Igogailua. 160.000 € / E.E.Z=F BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. 350.000 € / E.E.Z=F E.BUSTINTZA KIRIKIÑO KALEA: 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. 150.000 € E.E.Z=G GOIENKALE KALEA: Logela, sukaldea egongelarekin eta komuna. Igogailua. 160.000 € / E.E.Z=F SAN INAZIO AUZUNEA: 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Etxebizitza berria. 280.000 € / E.E.Z=A ZABALE KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Igogailua eta 2 kotxerentzako garajea. 375.000 € / E.E.Z=E</p>
 <p>C.E.E: F 195.000 €</p>	<p>BULEGOAK ALOKAIRUAN</p> <p>ABADIÑO 30 m2-tik gorako bulegoak. 350 -tik hasita. Argia eta wifia barne.</p> <p>DURANGO ERMODO KALEAN 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.</p>	<p>ABADIÑO SAN TROKAZ 33,65 m2. Egongela-sukaldea-jangela, egongela horma-armairuekin eta komuna duxarekin. 122,20 m2-ko lursaila. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea) Argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak gertu eta aparkatzeko erraztasuna.</p>  <p>C.E.E: G 210.000 €</p>	<p>ABADIÑO DENDARIKOA: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. 215.000 €.</p> <p>ATXONDO ARTEKALEA, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. 300.000 €.</p> <p>BERRIZ MURGOITIO AUZO: Berreraikitze baserria lurzoruagaz. LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 € EITUA: Berreraikitze baserria lursailarekin. LEHEN 350.000 € ORAIN 330.000 €</p>
<p>IZURTZA 261 m2-ko pabilioi industrialia. 261 m2-ko solairu artekoa, 10,50 m2-ko altuera. Aire-instalazioa. Karga-jasogailua eta polipastoa.</p>  <p>C.E.E.= E. 360.000 €</p>	<p>LOKALAK ALOKAIRUAN ALDE ZAHARREAN, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.</p> <p>LOKAL INDUSTRIALA SALGAI MATIENA 460m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia. ELORRIO 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoak. Jantzia. Lanerako prest.</p>	<p>IURRETA BIXENTE KAPANAGA 94 m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Ikuspegiak. ITE-a pasatutakoa.</p>  <p>C. E. E.: G. 187.000€</p>	<p>GARAI MOMOTIO AUZO: Etxebizitza eraikitze lursailak. Aukera ezberdinak.</p> <p>IURRETA ZUBIAURRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. 198.000 € / E.E.Z=F</p> <p>GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGON SALGAI KURUTZIAGA: garajea. 18.000 €. KURUTZIAGA: Garaje itxia 22.000 €. MADALENOSTE: Garaje itxia eta trastelekua. 42.000 €.</p>
<p>MADALENOSTE 70 m2. Erdi berria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Trasteleku bikoitza eta garajea</p>  <p>C.E.E=E 344.000 €</p>	<p>LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI</p> <p>BERRIZ BERRIZ Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.</p>	<p>BERRIZ AGIRRE LEHENDAKARIAEN PASEALEKUA 85m2. Halla, egongela, sukalde jantzia handia, 3 logela eta komuna berriztatua duxarekin. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialde-mendebaldea) Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Teilatua eta fatxada eraberritua (SATE) eta duela gutxi instalatu den igogailua du.</p>  <p>C. E. E.: Bidean. 700.000€</p>	<p>LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGON SALGAI ANDRA MARI KALEA: 76 m2-ko lokala. Salgai: 90.000 € / Alokagai: 800 € hilean / E.E.Z=E BARANDIARAN KALEA: 50 m2-ko lokala. 800 € hilean / E.E.Z=Bidean. IBAIZABAL AUZUNEA: 60 m2-ko lokala. 240.000 € / E.E.Z=E KOMENTU KALEA: 30m2-ko lokala guztiz berriztuta. 55.000 € / E.E.Z=F SAN MARTINPE ATARIA: 12 m2-ko lokala. 25.000 € / E.E.Z=F ZABALE KALEA: 50 m2-ko lokala. 60.000 € / E.E.Z=F IURRETA ZUBIAURRE: 11 m2-ko lokala. 20.000 € negoziagarriak.</p>
<p>EZKURDI 101 m2. erdigunean. 3 logela, 2 komun, eta 40 m2-ko egongela-sukalde-jangela. Terraza. Ganbara. Berriztatua.</p>		<p>DURANGO ASTIGAR (2024. urtekoa). 242,50 m2. Sotoa: 2 kotxerentzako garajea, sukalde-bokoa, komuna eta despentsa. Beheko solairua: halla, egongela, sukaldea eta komuna. Terraza. 40 m2-ko lorategia. Lehenengo solairua: 3 logela horietatik bat komunarekin eta beste komun bat. Bigarren solairua: espazio diafanoa logela, komun pribatua eta terraza. Ezin hobea. Igogailua.</p>	

Gu bagoaz, zu bazatoz?



MERTXE MUGIKA
BALANZATEGI

Kilometro kilometro, metroz metro, bidez bide, herriz herri, lurraldez lurralde, belaunaldiz belaunaldi, elkartzeko elkarre, eragilez eragile, eskuz esku eta euskaltzalez euskaltzale ibili da euskaren lekukoa Atharratzetik Bilbora. Zenbatezinak dira 24. Korrikak sortutako emozioak, pozak, hunkidurak eta harrabotsak. Malkoz eta irribarrez bete dute mezua zazpi gaztek: Leirek, Xabatek, Beñatek, Aitzolek, Ele-ne Menguyk, Oierrek eta Oihanak. Bestelako pizkunde bati heldu beharra dagoen une honetan, Euskal Herriko txoko desberdinetako eta askotariko jitea duten gazteak aukeratzea erabaki koherentea iruditu zitzaidan. Izan ere, euskararen geroa bermatzeko, ezinbestekoa da gazteak lehen lerroa ekartzea. Mezuaren bukaeran, egileek zuzenean interpelatu gaituzte: "Euskara gara eta hemen gaude. Hemen gara eta euskaraz gaude. Aurrera goaz. Bazatoz?" Euskal Herriko gazte euskaldunak eta gazte ez garen euskaltzale guztiok erantzun beharko genuke: "Bai, bagoaz zuekin pizkunde aro berri batera". Zelan, baina? Bada, ez dakienari euskaltegiatiko atea parez pare zabalduz, eta dakigunok ahalik eta gehien erabiliz: etxean, lanean zein kalean. Finean, bertoko hizkuntza eta kultura barneratu ezik, herria ez delako inoiz herri izango.

"Beti izan dugu josteko makina etxean, baina denboragaz sortu zait zaletasuna"

IRENE ORMAETXEA VELASCO SORTZAILEA

Aitziber Basauri DURANGO

Irene Ormaetxeak (Durango, 1991) eskuz egindako osagarriak sortzen ditu, ume, gazte eta helduentzat. Azaroan ekin zion bere izena daraman proiektuari, familiak eta lagunak bultzatuta. Etxean egokitu du tailerra, eta pozik dago orain arte egindako bideagaz (@ireneormaetxeatallerra).

Betidnik izan duzu joskintzarako zaletasuna ala denboragaz ikasitako zoezer izan da?

Etxean beti izan dugu josteko makina, baina denboragaz sortu zait sorkuntzarako zaletasuna. Amama jostuna zen, eta ama ere bai. Ez du lanbide izan, baina etxeko apaingarri guztiak amak egindakoak dira. Hala ere, nik neure kabuz ikasi dut josten. Umeentzako arropatxoak, fardela aldatzeko zorroak, kulero txoak... josten hasi nintzen, eta orain gazte eta helduentzako osagarriak ere sortzen ditut.

Zerk du arrakastarik gehien?

Fardelak aldatzeko zorroak. Horixe da proiektu honen jatorria. Orain zortzi urte, nire semetxo jaio zen eta ez nekien fardelak non eta zelan eraman. Orduan, fardelak gorde eta aldatzeko aukera ematen duen zorroa sortu nuen, neuretzat. Gero, nire ingurukoei oparitzen hasi nintzen, eta beste batzuek euren ingurukoei oparitzeko eskatu zizkidaten.

Beraz, premia batetik abiatuta hasi zinen osagarriak sortzen?

Bai. Gainera, ama izan nintzeanean, neskatuentzat eta muti-



Irene Ormaetxea berak sortutako hainbat lanekin.

koentzat dena oso sailkatuta zegoela ikusten nuen. Ez nuen topatzen niretzat aproposak ziren arropatxo edo osagarriak. **Umeentzat ala helduentzat da gaxtagoa sortzea?**

Helduentzat, merkatua oso handia delako. Gainera, helduok exigenteagoak gara.

Neurrira egindako edo pertsonalizatutako enkarguak izaten dituzu?

Bai, eta eskatutakora egokitzen ahalegintzen naiz. Adibidez, orain dela gutxi ordenagailuarentzako zorro bi egin ditut. Normalean ez dut horrelako



PEFC ziurtagiria
Produktu hau
kontrolatutako
iturrietako materialez
egina dago, birziklatua
da eta Baso Kudeaketa
Irunkorrenen
ziurtagiria dauka
www.pefc.es

osagarriak egiten eta ez dut aurreikusita horrelako produkturik sortzea, baina, ahal den neurrian, eskariei erantzuten ahalegintzen naiz.

Zein da egin duzun lanik bereziena?

Orain dela gutxi, opari bat bidali nion Lekeitioko familia bati: bikientzako kulero txoak, txupetea eusteko osagarriak eta logelarako banderatxoak, dena konjuntua. Ilusio eta mimo handiz egindako enkargua izan da. **Durangaldetik kanpoko enkarguak ere badituzu.**

Bai, izan ditut batzuk. Dena dela, eskaririk gehienak Durangokoak dira.

Eskuz egindako lanak balio erantsia du?

Norbaitek bere denbora hartu du eskatutakoa mimoz josteko; oihalak, koloreak... aukeratzeko. Nik ez dut stock handiagaz lan egiten, eta arropa eta osagarriak gehienak neurrira egindakoak dira, berezoko hartu-emanen sorturikoak. Horrelakorik ez dago ohiko dendetan.

Zelan ezagutarazten duzu zeure lana?

Sare sozialen bitartez eta merkatuetan. Orain dela gutxi, Durango antolatutako Naiz Market azokan egon naiz, eta aste-buru honetan Bilboko Indautxu auzoko azoka batera joango naiz. Maiatzaren 22an eta 23an, Pop-up denda batean erakutsiko ditut lanak, beste hiru sortzailegarekin batera.

Zein helburu duzu epe ertainera? Nora eramango zaitu proiektu honetik?

Bordatuak egiteko aukera aztertzen nabil. Izenak ipintzeko edo detaile txikiak bordatzeko. Hasi dut bidea eta ez dakit noraino helduko naizen. Pozik nago izan dudana erantzunagaz, eta aurrera jarraitu gura nuke.

Motzean

Josteko, goiza ala gaua?

Goiza.

Eskuz ala makinaz?

Makinaz.

Diseinatzeko, musika ala isiltasuna?

Musika.

Sormena da...

Poza.

Pastel-koloreak ala biziak?

Biziak.

IURRETA
Lanbide heziketa

www.iurretalhi.eus
idazkaritza@iurretalhi.eus
Tel: 944 66 88 00

ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa (A eremuan edota D eremuan egiteko aukera)
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonentzako Arreta

Instalazio elektriko eta automatikoen eta telekomunikazioen GRADU BIKOITZA (3 ikasturte)

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze-lan Elektronikoa
- Produzioaren Programazioa
- Zuzendaritzari laguntza (bigarren maila)

HASIERAKO LANBIDE HEZIKETA

- Informatika eta komunikazioak

AUREMATRIKULA (ezinbestekoa matrikula plaza lortu ahal izateko)
Maiatzaren 4tik 22ra arte

"guztiak D eremuan"

BERRIA

BERRIA

WhatsApp, Facebook, Twitter, Instagram